

ARRASATE P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 7a / 672. zenbakia




ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

EUSKARAREN ALDEKO HERRI LASTERKETA, ZAPATU ARRATSALDEAN

ORAIN ETA HEMEN: IKA-MIKAK HARROBIAREKIN/7 • KULTURA: EXTREMADURARREN KULTURA ASTEA/14

GREMIOEN GIDA/24

AZALA: ALEX AZKARATE



ILUNTZEAN

Erramun Martikorena solaskide



Ikustekoa!

ILUNTZEAN
Ile apa:ndegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz

Eguenean, maiatzaren 13an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

KALEINKESTA/ Estrasburgoko epaitegixek Itoizko koordinadorien kontra egin dau.



PILI ERDOZIA
Langillie



IÑAKI AZKARGORTA
Langillie



GORKA BURUAGA
Ikaslie



IÑAKI DURAÑONA
Langillie



ASIER AZURMENDI
Langillie



PATXI AGIRREBEÑA
Langillie

Nazioarteko epaitegixek koordinadorien alde euzen, Nafarroako gobernuek egindakue ilegala zalako. Azken juiziue entzunda, argi dau arazue politikue dala eta interes haundixek dauzela.

Hor interes haundixek dauz, ekonomikuek eta politikuek, besterik ez. Hango jentiek horren aurrien ez dauko ezer egitteko. Europan be antzera. Politikuen artien tapau egitten die.


Ez da justue. Han dauzen herri txikixek indderrakin eta akordixo barik hutsittu dittue. Herrixei ez dutzie entzuten. Eta, Europan jarrerie nahiko kontradiktorixue dala uste dot.

Europako epailiek hori esan badaue eurek jakingo daue, baiñe auskalo justue dan. Estrasburgoko epaitegixek Nafarroako herrittarrei arrazoie emutie oso gatxa zan; ez nau harrittu.

Itoizko urtegixen proiektuen kontra nau, eta pentsetan dot oso txarto daue la. Nafarroako horrenbeste herrittarrekin egin dauena. Europak herrittarrei lagun ketie gure neuen.

Estrasburgoko epaitegixen erabakixe oso txarto ikusten dot. Europan be inddar faktikuek eta ekonomikuek eragin haundixe daukie, eta ez daukie independentzia judizialik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK IBAIARI KALTE Joan den aspaldian, Deba ibaiaren egoera hobetzeko, kolektore eta depuradora proiektuek aurrera egiten dihardute. Ondorioz, badirudi poliki-poliki ibaiak hobera doala. Hala ere, irakurle batek honako kexa helarazi digu: ezegun batzuek erosketetarako orga bat bota zuten ibaira Zarugalde parean. Irakurlearen esanetan, halako jarrerak dira aldatu behar direnak.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /9

GAZTEAK /15

Garagartzaren aldeko epaia

Justizia Auzitegi Nagusiak Garagartzako auzotarreri arrazoia eman die Fagorrekin duten istiluan.

Eskubaloia Iturripen

AGR Arrasatek partidu garrantzitsua jokatu du bihar arratsaldean Urola taldearen kontra.

Fjord taldeari elkarrizketa

Arrasatear batek, ondarrutar bik eta arantzar batek Fjord musika talde indartsua sortu dute.

ASTEKODATUA

11,3

KILOMETRO DITU ARRASATE-OÑATI LASTERKETAK

Urtero AEDk eta Laixanek euskararen alde antolatzen duten Arrasate-Oñati lasterketak 11,3 kilometro izango ditu. Zapatuan izango da proba, eta hitzordua Garibain egin dute, 18:30ean.

BESTEKE SANA

“Eguneko gertakizunei buruzko datuak eta esangurak zabaltzen dituen telebistaren bidez, beste askoren artean, harreman sozialen joko-lerkua zein den eta horren baitan eremu pribatuaren eta publikoaren arteko mugak eta harremanak nolakoak izan behar diren erakusten zaigu. (...) Hori baino eszenategi zabalagoan, gure egunerokoan, gero eta gehiago dira telebista zirkuitu-itxia duten erakunde, errepide, denda, kale, banketxe eta osasun zentroak. Grabatuak ez izateko eskubidea edo zinta horien gaineko kontrol ezarekin batera norbanakoaren irudiaren jabetza galtzen da. (...) Informazioaren eremuen zapalketa legitimatzen dute, 'errealitatearen lekuko' izan eta 'informatu beharriaren' aitzakiaz”

EDORTA ARANA
'ARGIA' /04-04-25

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Lana

Aspaldian ARRASATE PRESSen irakurritako esaldi batek gogoeta ezberdinak sortu dizkit. Esaldiak honako hau esaten zuen: hitz egiten zuen pertsona harriturik zegoen bailara honetan lanak betetzen zuen tokiaz, berak kultura hutsunea lanaren espazioagatik bete ikusten zuen.

Nik ulertu nionez, inguru honetan batik bat lanaren inguruan bizi garela esan nahi zuen.

Egia da lanean hasteak aldaketa handiak dakartzala. Lotura gogor bat, nahi eta nahi ez egin beharreko zerbait (ikasle garaiak ere baditu bere loturak, baina ez dira hain zorrotzak). Nolabait derrigorarik gaude lanera joaten (gehienok behintzat), derrigorrezkoa dugu eta irabaziko dugun dirua.

Egia da lantegi edo lantalde bakoitzak bere giroa baduela, baina orokorrean giroa oso ona izanik ere, beti gaude asteburuaren zain, lana utzi eta

disfrutatzearen zain. Gero igande arratsaldea dator, eta hurrengo egunean gainera datorkiguna aurreikusirik, triste ipintzen gara. Txarrena, batzutan asteburuaren ere gainetik ezin kendurik ibiltzen garela laneko gauzaren bat (lan arazoren bat edo...).

“Lantalde bakoitzak bere giroa du, baina oso ona izanik ere, beti gaude asteburuaren zain, lana utzi eta disfrutatzeko”

Askotan badirudi gure bizitzako asteak bi egunetara mugatzen direla (ostiral arratsaldetik igande arratsaldera), eta lan astea igaro beharra dagoela bizitzaz gozatu ahal izateko. Azkenaldi honetan ez da berri on askorik entzuten

lan munduaren inguruan: langileen kaleratzeak, lan istripuak, lan baldintza eskasak... Arrazoizkoa eta zuzena da horiek salatzea, baina sakonago zerbait ere badago, ostiral eta domeka arratsalde bitartean ikusten dena. Agian hori jasan beharrekoa bezala onartu dugu, baina hala ere, jasan beharra dugu. Guzti hau lana izanez gero, zeren eta lanik ez duenak aurrekoa jasatea ere eskatuko luke.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bollnaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 8**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 9**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 10**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 11**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 12**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 13**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 14**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHIITZAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

XIV. KULTURA ASTEA
Corazon de Encina Extremadurako elkarteak XIV. Kultura Astea antolatu du. Bihartik, zapatua, maiatzaren 16ra arte, gastronomia, musika, antzerkia, *play-back*-a, jokoak eta beste izango dira San Andresen duten egoitzan.

EMAKUMEEN IRTEERA
Emakume Txokoak aurreratu egin du Urdaibai-Bermeorako irteera. Maiatzaren 22an egingo dute, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.

SAN PANKRAZIO EGUNA
Eguenean, maiatzaren 13an, San Pankrazio eguna ospatuko dute Eskolan. Eguaztenean, areto futboleko txapelketa hasiko dute. Eguenean, saskibalo eta mus txapelketak eta areto futboleko finala jokatu dituzte. Goizean, funky dantza eta kontzertua egingo dituzte. Herri bazkaria egingo dute, eta arratsaldean txapelketetako sariak banatuko dituzte. 21:30ean, Kerobia eta Eraso taldeek kontzertua egingo dute. Ekitaldi gehienak pilotalekuan izango dira.

MAGIA IKUSKIZUNA
Domekan, 01:15ean eta 02:15ean, Daniel Rossek magia ikuskizunak egingo ditu Gambrinus, doan.

AEDrenAGENDA

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA
Bihar, zapatua, AEDk eta Laixanek *Jantzi kirola euskaraz* lasterketa egingo dute Arrasatetik Oñatira. 18:30ean irtengo dira Garibaitik, eta izena emateko aukera izango da bertan, 17:00etatik aurrera.

ARRASATE LEHIAKETAK
Iazko irabazleen lanekin osatutako liburuxkak eskuragarri daude AEDn.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Fagorren, MCCTik irtetea eztabaidatzen

Fagor Kooperatiba taldeko batzorde gestoreak batzarra egin zuen langileekin. Batzorde gestorea haserre zegoen MCCk hartutako erabaki batzuekin, eta MCCk Fagor taldea sakabanatu gura zuela salatu zuen. Are gehiago, MCCk erreferenduma egitea oztopatzen ziela.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zuldarra"



Adoleszentzian gaztetxoei irten ohi zaizkien garauak.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA 2 °C
Zapatua, 1


MAXIMOA 20 °C
Domeka, 2

ASTEKO EURIA (l/m²) 36,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	13 °C	10 °C	2,5 l/m ²
Eguena, 29	16 °C	8 °C	7,7 l/m ²
Egubakoitza, 30	16 °C	7 °C	0,2 l/m ²
Zapatua, 1	16 °C	2 °C	12 l/m ²
Domeka, 2	20 °C	6 °C	0,9 l/m ²
Astelehena, 3	13 °C	7 °C	3,2 l/m ²
Martitzena, 4	13 °C	9 °C	9,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jesus Atxa euskaltzalearekin

Bihar, zapatua, Manuel Lekuona saria jasoko du Jesus Atxak euskararen alde egindako lanagatik. Aretxabaletan jaioa da Jesus, eta aita arrasatearra eta ama bergararra zituen. Saria Eusko Ikaskuntzak emango dio, euskararen eta ikastolen alde egindako lana eskertzeko. Orain dela hilabete gutxi Arrasate Irratiak elkarrizketa egin zion Atxari, eta saria jasoko duela aprobetxatuz, berriro eskainiko dugu solasaldi hura. Zapatu eta domekan errepikatuko dugu, 10:15ean.

Garaia guneko lanak hizpide irratan

Aste honetan Andoni Gartzia-ekin egin dugu berba Garaia ikerketa gunearren gainean. Lanak uztailan hasiko dira, eta lanok zein epetan egingo diren azaldu digu Garaia gerenteak, Andoni Gartzia. Zapatu eta domekan elkarrizketa hori entzuteko aukera izango da.

Bestalde, martitzenean, hilaren 11n, 19:15ean, Euskaltel-Euskadi taldeko Iban Mayo txirrin-ulariari GOITBko *Iluntzean* saioan eginiko elkarrizketa eskainiko dugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Mikel Alberdi, euskal bandoleroez; Larraitz Arando eta Eva Ruiz de Eguino, hirugarren adineko sexualitatearen gainean...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: elemerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
13:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean Iban Mayo

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Oinezkoendako kale berriak

Arrasateko Udalak hainbat kale oinezkoendako egin gura ditu, eta horretarako, lanak adjudikatzeko prozesuari ekin dio.

Asmatu enpresak aurkeztu du Azoka, Mondragones eta Otolora kaleak urbanizatzeko proiektua, milioi bat berrehun mila euro pasatzeko aurrekontuarekin. Kale horiekin batera, beste kaleekin dituzten loturetan ere egingo dituzte lanak. Lanok amaitu eta gero, kale horiek alde zaharreko eremura zabaldu gura dituzte. Udalak gura du lanak egin eta gero azokaren inguruan auto gutxiago ibiltzea.

Peruko proiektuetan hainbat aldaketa

Arrasateko Udalak 2002an eta 2003an Yungayn (Peru) bi proiektu egiteko dirua eman zion SERSO-San Viator gobernuz kanpoko erakundeari. Baina GKE horrek hango egoera dela-eta arazoak ditu proiektuok aurrera eramateko. Horregatik eskatu dute bi urte horietan jasotako dirua proiektu bakarrerako erabiltzea: emakumeen heziketa bultzatzeko tailerrak erakitzea, hain zuzen.

Horrela, bi proiektuetako dirua (28.000 euro) lurrak erosi eta tailerrak eraiki eta martxan jartzeko erabiliko dira. Udalak onartu egin du eskaera hori, baina baldintza batekin: noiz-bait tailerrak bertan behera geratzen badira, lur horiek Arrasateko Udalarenak izango dira.

Arrasaten enpresa berria: Abantail

Iñaki Telleriak eta Sonia Ortubaik sortu dute Abantail izeneko enpresa berria. Hasiara batetik argi utzi dute enpresaren helburu nagusia: Estatu mailan diseinu moldatzailean lidertza lortzea. Abantail enpresa Ikerlan eta LKS enpresen babespean sortu da. Horrek esan gura du diseinu eta teknologia aplikatuan 25 urteko esperientziaren bermea duela Arrasateko enpresa berriak.



Sistema berria larrialdi zerbitzuetan

Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan sistema berria jarri dute abian. Larrien dauden gaixoak ahalik eta azkarren hartzea da helburua, eta horretarako, gaixoak larritasunaren arabera sailkatuko dituzte. Horrek ez du esan gura, baina, orain arteko itxaronaldiak murriztuko direnik.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Aldaketak

Aurrekoan ere Europaren gainean idatzi nuen eta tira, badirudi gaiak ematen duela, edo zelanbait komunikabideek gai horren gainean girotu nautela.


Aspaldian hausnarketa egin dut hemengo bizimodua zenbat garestitu den. Lotsagarria da. Ekonomistek agian jakingo dute euroak zein onura ekarri dizkigun baina txanpon plural horren

erruz edo batzuk aldaketa horretaz baliatu direlako dena izugarri garestitu da. Bai, bai, ez da oraingo kontua, baina amorratzeko modukoa da. Horregatik, sartu berri diren poloniarrez, txekiarrez eta bestelakoez oroitzen naiz. Jakingo balute! Beste aldean, atzerrian txanpon bera erabiltzeko erosotasuna aipatzen dute. Gurago dut hemengo

prezioak altxatu beharrean, atzerria joaten naizen bakoitzean txanpon ez aldatu eta moldatu behar.

Eskerrak albiste globalizatzaile pozgarriagoak ere badaudela. Astean nazioarteko hainbat talde errepublikarrek Europar monarkia indargabetzeko eskaera egin dute, saltzen duten Europa demokratiko horretan lekurik ez daukatelako. Are gehiago, halako pertsoniak mantentzeak ere badu bere pisua edozein txanponetan.

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

ZERAMIKAREN GAINKO TOPAKETA ERRALDOIAK, HERRIAN

Ceramicarte aldizkari digitalak Zeramikagileen I. Topaketak antolatu ditu, eta maiatzeko zeramikaren gaineko hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte herrian. Topaketa horiek hainbat helburu dituzte: alde batetik, herritarrei zeramika (ia) osoz erakutsi gura die; eta bestetik, zeramikagi-

leei ezkutuan egiten duten lan erraldoia erakusteko baliabideak eman gura die. Astean punta-puntako zeramikagile batzuek erakusketak ipini dituzte, eta gaur eta bihar beste mota bateko ekintzak egingo dituzte, are ikusgarriagoak. Ziur asko ikasiko dugula! //B.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

CORAZON DE ENCINA EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Asteleheneetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurretik eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztionez zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.

EUSKARA/ Arrasateko Euskalgintza

Arrasateko Euskalgintza: lau urte euskararen normalizazioaren alde lanean

XABIER URZELAI

Lau urtez euskararen plan estrategikoa lantzen ibili eta gero, Arrasateko Euskalgintzako kideek ospakizuna egingo dute gaur Uarkapen. Badago zer ospatu, baina oraindik ere lan handia dago egiteko. Hala ere, Euskalgintzako kideen arteko harremana sendotzeko ekimenak beti dira eskertzekoak.

Batzar mordoia egin eta gero, Euskalgintzako kideak formaltasunak alde batera utzi, eta behingoagatik, afari bat eginez elkartuko dira mahaiaren bueltan. Afari horretan, Arrasateko Euskalgintza osatzen duten erakunde ordezkariez gain, lantaldeetako lagunak ere bilduko dira. Euskalgintza hamahiru talde eta erakunde osatzen dute: AED, Arizmendi, Arrasate Aretxabaleta BHI Institutua, Arrasate Herri Eskola, Arrasateko Udala, Euskal Herriaren Euskaraz, Ekin Emakumeak, Emun, Erdu AEK Euskaltegia, Euskalan, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Mese-deetako Andra Maria Ikastetxea eta Txatxilipurdik.

LAU URTE LANEAN

2000. urtean, Kontseiluak proposatu zuen euskararen plan estrategikoa herrietan bultzatzea, eta Arrasatek hartu zuen bere gain herri pilotu izatea, baina baldintza batekin: plan horren nondik norakoak herriaren euskararen inguruan lanean zebiltzanek erabakiko zutela. Hausnarketa prozesua eginda, konturatu ziren herriarengana zuzendu aurretik, lehenago Euskalgintza osatzen duten taldeen arteko koordinazioa landu behar zutela.

HELBURUETAN AUERRERA

Orduetik hona aurrerapen handiak egin dituzte, eta poliki-poliki helburuetan aurrera egin dute. Plan estrategikoa lau helburu garbi ditu: lehen, herriko euskalgintza bera gorpuztu eta artikulatu, sinergiak eta plan bateratuak lortzeko; bigarrena, gizartearen arlo estrategikoa euskalduntzeko plana egitea; hirugarrena, euskararen ezagutza bermatu eta erabilera sustatu gura dute, gizabanakoengan eta gizartearen, ahalik eta hizkuntza kalitate handienarekin; eta, laugarrena, herritarrek euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokoa era baikorra eta aktiboa izatea lortu gura dute, prestigioa landuta eta kanpoko faktoreen aurrean neurriak hartuta.

Helburu bakoitza lortzeko hainbat ekintza egiten dituzte, guztion artean adostuak. Eta, lantaldeek egiten dute posible helburuak betetzen joatea. Lantalde horien lanaren jarraipena Jarrai-



Arrasateko Euskalgintza osatzen duten hamahiru taldeetako ordezkariek.

ARTXIBOA

“Arrasateko esparru guztietan euskaraz normaltasunez bizi ahal izatea da helburu nagusia”

pen batzordeak egiten du. Jarraipen batzordea sei kidek eta dinamizatzaileak osatzen dute eta hilean behin elkartzen dira. Euskalgintzako ordezkariek guztiak, berriz, urtean birritan elkartzen dira, besteak beste, ordura arte

“Gura izan dugu Euskalgintzako taldeak logotipoarekin identifikatzea”

egindako lanaren balorazioa egiteko, eta aurrera begirako lan ildoak adosteko.

HERRIRA BEGIRA

Lehen ere esan dugu orain arte Euskalgintza talde moduan gor-

“Komunikazioa oso garrantzitsua da, eta horretarako gabiltza prestatzen webgunea”

puzteko lanean ibili dela. Leire Bergarak, Euskalgintzako plan estrategikoa dinamizatzaileak, azaldu digun moduan, urtariletik hona herrira begira hasi dira lanean: “Orain da momentua apurka-apurka gizarte era-

gileengana zuzentzen hasteko. Lehen, hori egin aurretik gure artean lan handia geneukan egiteko. Azkeneko urteotan horretan ibili gara, eta urtariletik hona hurrengo fasearekin hasi gara lanean, herrira zuzenduta dagoen lanarekin, hain zuzen”. Arrasateko Euskalgintzak dituen erronken gainean ere egin digu berba Leirek: “Azken baten, asko dago egiteko, baina Euskalgintzan lan dinamika bat lortu dugu, eta garrantzitsua da lan dinamika horri eustea”.

MOTIBAZIO SAIOAK

Euskalgintza barruan dauden lantaldeetako bat motibazio saioak prestatzen dabil. Eta, motibazio saio horietako bat datorren egunean egingo dute, hilaren 13an. Euskalgintzak proposatuta, Arrasateko Udalak antolatuta du egun horretako motibazio saioa. Saio hori Arrasateko gazteei dago zuzenduta. Hala, Arrasateko ikastetxeetako DBHko hirugarren mailako ikasleek berbaldia izango dute Arrasateko gaztetxean.

Kike Amunarriz egingo du berbaldia, *Euskaraz dibertitzeko manierak* izenekoak. Berbaldi horren helburua da, batetik, ikastetxe ezberdinetako ikasleek elkar ezagutzea; eta bestetik, gazteei erakustea posible dela euskaraz bizi eta ondo pasatzea. Normalean, nahiz eta euskaraz ondo egin, adin horretako gazteek joera handia izaten dute gazteleeraz berba egiteko, eta arlo horretan badago zertan lan egin. Eta, horretan saiatuko da Kike Amunarriz datorren egunean.

GAZTEAK ETA EUSKARA ELKARTU GURAN

Kike Amunarriz aspaldi hasi zen gazteen artean euskaraz bultzatzeko lanean, eta gai horren inguruan dagoeneko berbaldi asko egin ditu Asisko Urmenetarekin batera.

Liburu bat ere idatzi du Argia astekarian lan egiten duen umoregileak, *Mantxut* izenekoak. Liburuak euskarazko lokuzio, espresio eta esamoldeen bilduma da.

Euskalgintzak badu logotipoa, eta aurki webgunea ere bai

Arrasateko euskalgintzak badu logotipoa. Arteman enpresak diseinatu du, eta Leire Bergarak eman digu horren berri: “Logotipoa joan den urteko urrian egin genuen geure, baina ez dugu jendaurrean aurkeztu. Gura genuen Euskalgintza osatzen duten talde eta erakunde guztiak logotipoarekin identifikatzea. Azken baten, Euskalgintza ordezkatzea, eta uste dut logotipoak betetzen duela lan hori”. Horretarako, Arrasateko

Portaloian dagoen arkuaren irudia erabili dute, eta arkuaren forma aprobetxatuta, gorri margotutako e hizki handi bat jarri dute arkuaren behealdean: “E hizkiak euskaraz berba islatzen du, eta kolore gorriak bizitasuna eta indarra ematen dio logotipoari, eta baita euskaraz adierazi gura duen e hizkiari ere”.

Logotipoa ez da, baina, Euskalgintzaren berritasun bakarra: “Lan dinamika ona izateko garrantzitsua

da komunikazioa, eta horretarako gabiltza prestatzen webgunea. Webguneak bi funtzio garrantzitsu izango ditu: batetik, Euskalgintza osatzen duten elkarte eta erakunde artean komunikazioa errazteko bidea izango da. Eta, horretarako webguneak Intranet izango du; eta, bestetik, lagungarri izango da herritarrek Euskalgintzaren gainean informazioa izateko, eta Euskalgintzari ekarpenak egiteko”.

ZERBITZUAK / San Kristobal hilerriak zerbitzu berria eskainiko du

Ehorzketak eta errausketak goizez egin ahal izango dira

UBANE MADERA


Datorren ekainaren 1etik aurrera, San Kristobal hilerrian egin beharreko gorpuen ehorzketak eta errausketak goizez zein arratsaldean egin ahal izango dira, herritarren nahien arabera. Hala onartu du oraingo astean Tokiko Gobernu Batzarrek.

Gipuzkoako zenbait herritan egiten dutena aztertu ostean (Donostian, Irunen, Hernanin, Tolosan...), Arrasateko Udalak erabaki du arrasatearrei aukera eskaintzea ehorzketak zein errausketak, familiek gura dutenean egiteko, goizez zein arratsaldean. Era berean, ehorzketak edo errausketak hileta-elizkizunaren aurretik edo ostean egin ahal izango da, norberak gura duenean. Zerbitzu berri horri esker, adibidez, gorpua hileta-elizkizunaren aurretik lurperatu gero, hileta-elizkizunaren ostean, hildakoaren senitartekoak euren senide eta lagunekin lasai egoteko aukera izango dute; orain, berriz, hileta-elizkizuna bukatu eta derrigorrez joan behar izaten da berehala hilerriara.

Zerbitzu berriak ez du herritarrengan bestelako eraginik izango; hau da, prezioari dagokionez, ez da aldaketarik izango. Herritarrei aukera berria eskaintzea da helburua. Hala adierazi digute Udaleko Zerbitzu Sailetik. Gaineratutakoaren arabera, goizeko zerbitzua eskaintzen duten herritan, zerbitzu horren eskara dezentea handia da; herritarrek ohiturak aldatu eta askok nahia go dute lurperatzeak goizez egitea, hileta-elizkizuna baino lehen.

ASTE BURUAN, ZAILAGO

Zerbitzu Saileko teknikari Moises Altunak kontatu digunez, zer-



ARRASATE PRESS

Astelehenetik domekara bitartekoa izango da goizeko zerbitzu berria.

bitzu berria proposatu baino lehen, inguruko ehorzketak nagusiekin (Moyua, Euskalduna, Arrasate...) eta Artzapezpikuarekin berbetan izan dira, Jenaro Lekuonarekin, hain zuzen ere. Guztiei ondo iruditzen zaie Udalak eskaini gura duen zerbitzua. Hori bai, Arrasateko parroko eta Artza-

pezpikuak abisatu die asteburuetan abadeek zailtasunak izango dituztela San Kristobal hilerrian goizeko zerbitzua emateko. Izan ere, berez, bestelako konpromisoak dituzte zapatu eta jai-egun goizetan (ezkontzak, bataioak, mezak...).

ZERBITZU BERRIAREN ABANTAILAK

Zerbitzu berriak herritarrei mesede egiteaz gain, Udaleko langileei ere egingo die mesede. Izan ere, orain arte iluntze-gau partean egin behar izaten zuten lana hilerrian, askotan oso eguraldi eskasarekin. Gainera, oso egutegi zaila dute langile horiek, ehorzketen kasuan-eta ezin baita ezer aurreikusiri. Orain, hobeto egokitu ahal izango dute hori guztia.

*Zerbitzu berriari
esker, gorpuek
goizez zein
arratsaldean lurperatu
daitezke*

Harrobian lanean segitzen dutela salatu du Ezker Batuak

U.M.

San Josepe harrobia berri ere berba dute udaletxean. Izan ere, Ezker Batua alderdiak salatu du harrobia ixteko emandako agindua ez dutela errespetatu eta oraindik lanean dabilzala han.

San Josepe harrobia joan den apirilaren 27an itxi behar zuten. Hala erabaki zuen osoko bilkurak martxoaren 29ko batzarrean, EBren, EAren, PSE-EEren, eta Aralarren botoekin; PP abstenitu egin zen eta EAJk harrobia zabalik mantentzearen alde egin zuen. Kontuak kontu, Ezker Batuak salatu du apirilaren 29an eta maiatzaren 1ean leherketak egin zituztela San Josepe harrobian. Horrek esan gura du lanean segitzen dutela.

HIRU SALAKETA

Horren aurrean, idatzi bat aurkeztu zioten Udaleko Hirigintza Sailari. Besteak beste, zera diote: harrobiak egin duena herritarren gehiengoari buru egitea dela, eta halakoen aurrean, Udalak gogor erantzun behar duela, zigorrek. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Meategien Sailari eskatu diote errespetu dezala harrobia ixteko

Udalak hartutako erabakia eta ez dezala leherketak egiteko baimen gehiago eman. Horrekin batera salatu dute San Josepe harrobian ustiatzea daraman enpresak ez duela harrobia berreskuratzeko asmorik. Benetako asma harrobia esplotatzen segitzea dela. Horren adibide, harrobia itxi baino lehen egin dituzten leherketak. Haiei esker, harrobiak beste urtebeterako lana eskuratu du, eta Udaleko Hirigintza Sailak ez du begi txarrez ikusten harrobiak esku artean duen harri hori prozesatzen jarraitzea, betiere, legeak uzten badu. Horren harira, Udaleko abokatuei galdetuko die Hirigintza Sailak, eta ez badago arazorik, harria prozesatzen utziko diote San Joseperi.

Bestalde, enpresak zenbait langilerekin izan duen jarrera ere salatu du EBk. Lan-egoera salatu eta harrobiaren ustiatzearekin amaitzeko eskatu zuten langileen kontra enpresak presioa egin duela diote.


Gaineratu dute arazoarendako irtenbiderik egokiena Udalaren, lantegiaren eta Eusko Jaurlaritzako Meatze Sailaren artean berba egin eta harrobia obra zibilaren bitartez berreskuratzeko hitzarmena lortzea dela.



ARRASATE PRESS

Berez, apirilaren 27an utzi behar zioten jardunari San Josepe harrobian.

*Aldez aurretik
deitu!*



Zenbaki

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 • Faxes: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak garagartzarrei eman die arrazoia

UBANE MADERA

Garagartzarrek helegitea jarri zuten Fagorrek Garagartzan egin gura duen proiektuarekin lotutako puntu bati. Lantegia handitzea da proiektu horren helburua, eta arau subsidiarioak aldatu zituzten hori egiteko. Orain, auzitegiak atzera bota ditu aldaketok.

Fagorrek Garagartzan egin gura duen lantegiaren handitzeak piztu du auzotarren eta lantegiaren arteko ika-mika. Garagartzako auzo batzordeak prentsaurrekoa eman zuen guztia azaltzeko. Kontua da orain dela bi urte lantegia handitzeko asmoa zuela jakinarazi zuela Fagorrek. Hori egiteko, Udalak, garagartzarrek eta Fagorrek hitzarmena adostu zuten. Horren arabera, Fagorrek behar beste handitu zezakeen lantegia, betiere hiru baldintza betetzen bazituen: lursail bat sortzea industria gunaren eta auzoaren artean, berdegunea sortu eta lantegiak auzoari egiten dion eragina gutxitzeko. Horrekin batera, auzotarrek eskatu zuten Fagorrek egin gura zuen aparkalekua industria eremuaren barruan kokatzea, eta bi solairuko aparkalekua izatea. Bukatzeko, aparkalekutik sartu eta irteko bidea oraingo bide bera izatea adostu zuten, Garagartzara sartu baino lehenago dagoena.

Baina garagartzarrek salatu dute 2001ean Udalak beste hitzarmen bat sinatu zuela Fagorrek. Haren arabera, auzotarrek in-



GÓRKA ETXABE

Martitzenean prentsaurrekoa eman zuen Garagartzako auzo batzordeak.

adostutako berdegunearen zati bat 110 lekuko aparkalekua egiteko erabiliko dute; gainera, aparkalekurako sarrera aldatu eta Garagartzara joateko bidetik sartuko lirerateko automobilak. Auzotarrek diote bide hori txikiagia dela horretarako eta hori egiteak, kaltea egingo diola auzoaren bizi-kalitateari.

Hala, esandako guztia egiteko, besteak beste, arau subsidiarioak aldatu zituzten, Diputazioaren onespenerekin. Orain, auzitegi Nagusiaren sententziak dio atzera bota beharko dutela arautan egindako aldaketa hori. Gainera, sententziak dio ez dutela

behar beste justifikatu 110 lekuko aparkalekuaren beharra eta Udalak arbitrarioki jardun zuela hasierako erabakia aldatzean.

ONARTU BEHARRA

Gauzak horrela, Garagartzako auzo batzordeak uste du emandako sententzia onartu egin behar dutela Udalak eta Fagorrek; eta sententziaren edukia kontuan hartu behar dutela izapidetzen dabilzan Egitamu Orokorrean. Auzotarrek jakinarazi zuten dagoeneko egin dutela berba alkatearekin eta orain, Fagorrek harremanetan jartzeko asmoa dutela.

Ikastolaren Eguna ospatuko du Arizmendi Ikastolak, bihar

U.M.

Bihar, zapatua, Ikastolaren Eguna ospatuko du Arrasaten Arizmendi Ikastolak. 10:00etan hasi eta 14:00ak arte puzgarriak, lantegiak eta bestelakoak izango dira Seber Altuben eta Ferixalekuan.

Ikastolaren Egunarekin haste-ko, 10:00etan, ongiatorria egingo diote *Argitxo*-ri Seber Altuben. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeko duten maskota da *Argitxo*. Ipuin bat irakurriko du maskota horrek. Gero, 10:30ean, urtean egindako kultura ekintzen emaitza erakutsiko dute ikastolako ikasleek. Hala, bertsolariak, antzerkia eta abesbatza izango dira.

Horren ostean, Ferixalekuan izango dira ekintzak. 11:00etan, puzgarriak eta *Jokulandia* izango dira. Birziklatutako materia-

lez egindako 35 jolasen zirkuitua da *Jokulandia*. Ordu berean baita ere, batxilergoko ikasleen lantegiak izango dira. Eta 14:00etan, argazki lehiaketa eta *Argitxo* lehiaketaren sari banaketa izango da. Horrez guztiaz gain, Andaluzia, Galizia, Extremadura eta Euskal Herriko gastronomia dartzeko aukera ere izango da.

INGURUMENAREN KULTURA ASTEA

Bestalde, egunotan, garapen jasagarrian oinarritutako Kultura Astea egin du Arizmendi Ikastolak. Hala, herritar guztiendako bizi-kalitate hobea ziurtatzeko helburuarekin bat egin eta hainbat ekintza antolatu ditu: Nafarroako Mugarik Gabeko taldeak ekarritako *Baratze Kritikoa* izeneko erakusketa; bizimodurako bide alternatiboen gaineko mahai-ingurua eta bioeraikuntzaren eta lurraren gaineko hitzaldi bana. Era berean, ikasleendako bestelako ekintza bereziak ere antolatu dituzte.



ARIZMENDI IKASTOLA

Baratze Kritikoa izeneko erakusketa izan da egunotan Monterronen.

Emakumeen kontrako erasoak salatzen agerraldian jende gutxi

U.M.

Emakumeen kontrako erasoak salatzen kale agerraldia egin zuten, Emakume Kontseiluak deituta. Halako bat egiten duten bigarren aldia da, eta aurrekoan moduan, oraingoan ere uste baino erantzun eskasagoa izan dute. Zer egin erabaki beharko dute orain.

Astelehenean egin zuten kale agerraldia. Baina antolatzaileek uste zuten baino erantzun txikiagoa izan zuen Emakume Kontseiluen deia. Udaleko Emakume Sailko arduradun Joxe Etxeberriak Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, emakumeek jasaten duten indarkeriak gizartea ez dela sentibilizatu dirudi. Batez ere, ikusita orain arte egin dituzten agerraldiek izan duten erantzuna.

MAIATZAREN 17AN, BATZARRA

Gauzak horrela, aurrerantzean zer egin erabakitzen batzarra dei-



GOITB

Emakumeen kontrako erasoak salatzen egiten duten bigarren agerraldia da.

tu dute datorren maiatzaren 17rako. Emakume Txokoan izango da. Helburua da erabakitzea zer jarrera hartu eta zela egituratu ekintzak eta euren arteko lana.

Edozelan ere, orain arteko erantzuna oso txikia izan arren,

Emakume Kontseilukoek ez dute amore eman nahi eta, oraingoan, behintzat, udara arte segituko dute hilero kale agerraldi bat egiten. Herriko Plazan izaten dira protesta ekimenak, hileko aurreneko astelehenetan, 19:30ean.

LABUR

Saharako kanpalekuan errefuxiatuta dauden umeak hartzeko familia gehiago behar dira

Udaletik jakinarazi digute dagoeneko beteta dagoela Saharako kanpalekuan errefuxiatuta bizi diren umeak hartzeko gertu dauden familien zerrenda. Edozelan ere, gaineratu digute izena eman duten familietako batek kale egiten badu, egokia izango zela bada-erzpada beste familia bat aukeran izatea. Hori dela eta, eskatu dute interesa izanez gero, egitasmo horretan parte hartzeko izena eman dezatela. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute horretarako. Guztira, 14 saharar ume etorriko dira udan; horietatik 12 Arrasatera, eta gainerako biak Aretxabaletara.

Maiatzean birritan etorriko dira Arrasatera nortasun agiriak egitera

Udaltzaingotik jakinarazi digute maiatzean pare bat bider etorriko direla Arrasatera nortasun agiriak egitera. Eskaera asko dagoela eta etorriko dira birritan. Hain zuzen ere, maiatzaren 26an eta maiatzaren 31n izango dira Arrasateko IMIn. Baina, betiko moduan, txanda lehenago hartu beharra dago. Maiatzaren 24a da horretarako eguna. Bestalde, gai berarekin lotuta, Udaltzaingoa jakinarazi digute dagoeneko hantxe dituztela orain arte egindako nortasun agiriak, hortaz, ahal izan bezain laster hara joan eta hartzeko eskatu diete herritarrei.



AITOR LIZARRALDE

AGR Arrasatek datozen bi partiduak etxean jokatuko ditu: Urolaren kontra bihar eta Erromoren kontra datorren astean.

ESKUBALOIA

AGRk Urolari irabazi behar dio goialdean jarraitu ahal izateko

Arrasateko taldeak Iturripen jokatu du zapatu arratsaldean (18:00)

XABIER URZELAI

AGR Arrasate Eskubaloi Taldea behetik gora dator, eta mondragoetarrak dagoeneko hirugarrenak dira sailkapenean. Deustuan irabazi eta gero, bihar, gipuzkoarren arteko derbia izango da ikusgai Iturripen. Eta, mondragoetarrak errebantxa gogoz daude.

Igoera fasea zelanbaiteko konplexuarekin hasi zuen Arrasateko taldeak, urduritasunez, eta kale egin behar ez den momentuetan kale eginez. Arrasateko jokalariek, baina, berehala ikasi zuten ikasgaia, eta azkenaldian ez da egon AGR Arrasate geratuko

duen talderik. Joan den astean jai-tsiera faseko azkeneko postuan zegoen Bizkaia Deusto taldeari irabazi zioten (25-32), baina lehengo ere taldeak maila oso ona erakutsi zuen lehenengo postuetan zeuden taldeen kontra.


HELBURUA OSO ARGI

Arrasateko taldeak oso argi du goiko mailara igotzea dela aurtengo helburua, eta hori lortzeko jokalariek daukaten guztia emanago dute. Oraingo asteburuan, Arrasatek Urolaren kontra jokatu du. Bi talde horiek ondo baino hobeto ezagutzen dute elkar, eta seguru norgehiagoka parekatua izango dela. Liga Txapelketan, Zumarragako taldea hobe

izan zen, baina igoera fasean Arrasate dabil askoz ere indartsuago. Gainera, jokalarik mondragoetarrak errebantxa gogoz egongo dira. Batetik, Ligan Urola aurreratu zelako; eta bestetik, igoera faseko joaneko itzulian Urola nagusitu zelako.

Biharko partiduak, gainera, garrantzi handia du, igoera faseko goiko postuetan alde txikia dago-eta. Corazonistas eta Erromok bederatzina puntu dituzte, eta atzetik dator AGR, zortzi punturekin. Oraingo asteburuan, aurrean dauden bi talde horiek elkarren kontra jokatu dute, hortaz, aukera ezin hobe izango du AGR Arrasatek sailkapenean aurrera egiteko.

FOTOKIROLA



Judoko harrobia sasoi onean

Joan den zapatuan jokatu zuten Lezon Eskola Kirolaren alde alebin mailako Gipuzkoako Judo Txapelketa. Arrasateko judoek maila ona erakutsi zuten, eta, besteak beste, egindako talde-lanari esker hirugarren postuan sailkatu ziren. Argazkian, Enara Beloki, Jonander Fernandez, Igor Hernandez eta Cristian Serrano judokak, eta Julio Gallego entrenatzailea. Emaiza horrek argi erakusten du Arrasaten judoa bizi-bizirik dagoela. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Betrayer - Iriztu Taberna	8-4
AC Surcos - Etxerat	4-9
Aloña Taberna - Speed Boys	6-7
Dream Team - Abokajarro	11-7
Dribling - Lasagabaster	1-5
Saukelu Scream - You Know!	2-2
Goma 2 - AT Celaya	0-1
Rayo Aldeano - Tomahawk	0-1

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Etxerat	11	6	
2. Betrayer	10	6	
3. AC Surcos	10	6	
4. Iriztu Taberna	5	6	
5. Aloña Taberna	4	6	
6. Speed Boys	4	6	
7. Abokajarro	2	6	
8. Dream Team	2	6	

PARTIDUAK

MAIATZAK 8, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Lasagabaster - AT Celaya	Antola.
11:00: AC Surcos - Abokajarro	Antola.
12:00: Saukelu Scr. - Tomahawk	Antola.
13:00: Betrayer - Etxerat	Antola.

MAIATZAK 9, DOMEKA. EPAILEAK

10:50: Dribling - You Know!	Antola.
12:00: Iriztu Taberna - Speed Boys	Antola.
18:00: Aloña Tab - Dream Team	Antola.

B MULTZOA

B MULTZOA		P	J
1. Saukelu Scream	11	6	
2. Lasagabaster	8	6	
3. Dribling	8	6	
4. You Know!	7	6	
5. AT Celaya	7	6	
6. Tomahawk	7	6	
7. Rayo Aldeano	0	6	
8. Goma-2	0	6	

HURRENGO FASERAKO TXARTELAK 'SALGAI'!!!

HURRENGO FASERAKO SAILKATZEKO AZKEN AUKERA, ASTEBURUAN

Oraingo asteburuan jokatu dute Zaldibarko bigarren faseko azken jardunaldia, eta zortzi taldek baino ez dute aurrera egingo; multzo bakoitzeko lehenengo lau taldeek, hain zuzen. A multzoan ikusteko moduko partidua jokatu dute Etxerat eta Dribling taldeek, baina emozio handiagoa egongo da domekan Iriztu eta You Know taldeek eta Aloña Taberna eta Dream Team taldeek jokatu dituzten partiduetan. Norgehiagoka horietan erabakiko da A multzoko azken sailkatua nor izango den.

Eta, B multzoan emozioa ez da txikiagoa. Saukelu Scream-ek aspaldi egin zituen etxeko lanak, eta asteburuan gainontzeko hiru txartelak egongo dira *salgai*; eta, txartel horiek eskuratzea garesti egongo da. Lasagabaster eta AT Celaya eta Dribling eta You Know! taldeen arteko norgehiagokak hil edo bizikoak izango dira. Tomahawk taldeak, berriz, dagoeneko sailkatuta dagoen Saukeluren kontra jokatu du. Nork gura du emozio handiagoa?

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Sto. Tomas Lizeoa	Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Ondarroako Aurrera	Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
San Ignacio CD - Arrasate	Big. Gazteak. Zapatuan. 11:30. Donostian.
Arrasate CD - Anaitasuna	Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
San Ignacio - Arrasate B	Big. Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Donostian.
Eibartarrak - Mondra	Neskak. Domekan. 17:00. Unben.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Urola Agip	Igoera fasea. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
---------------------------	---

Urola Premank - Arrasate

Neskak. Kopa. Zapatuan. 16:00. Ispillan.	
Pulpo - Gatz Museoa Jakion	Gazteak. Kopa. Domekan. 12:00. Lubakin.
Leizaran - Gatz Museoa Jakion	Kadeteak. Kopa. Zapatuan. 17:30. Allurralden.

ATLETISMOA

Arrasate - Oñati lasterketa	Zapatuan. 18:30. Garibai Etribidean.
-----------------------------	--------------------------------------

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. Gazt. Euskalduna - Mondra	2-0
Big. Gazt. Arrasate - Beraun Berri	5-0
Ohor. Kadet. Arrasate - Antiguoko	1-3
Big. Kadet. Arrasate B - San Petricio	6-1
Neskak. Kopa. Mondra - Almen Are	2-1

MENDIA

Besaidek Gipuzkoako Bira eta beteranoen irteera antolatu ditu maiatzerako

Gipuzkoako Birako hirugarren etapa Urkarregitik Ermuara egingo dute; beteranoak, berriz, Nafarroa aldera joango dira maiatz amaieran

XABIER URZELAI

Besaideko lagunak jo eta su dabilta lanean, eta maiatzerako bi irteera antolatu dituzte. Maiatzaren 16rako Gipuzkoako Birako hirugarren etapa antolatu dute, eta hileko azken zaturako, hilak 29, Besaideko beteranoendako urtero egiten duten mendi irteera. Aurten, Nafarroa aldera joango dira.

Datorren domekan, hilak 16, Besaide Mendi Elkartekoek Gipuzkoako Birako hirugarren etapa egingo dute. Oraingoan, Elgoibar eta Markina inguruan hasiko dute ibilaldia, Urkarregin, hain zuzen. Urkarregin hasi eta Ermuan amaituko dute ibilaldia. Guztira, lau ordu inguruko ibilaldia egingo dute. Irteera Arrasaten izango da, Garibaiko autobus geltokian, goizeko 7,30etan. Eta, arratsaldeko ordu biak aldera itzuliko dira Ermutik.

Irteera horretan esku hartu gura dutenek datorren astelehenera arte izango dute

aukera, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

BETERANOEN IRTEERA

Azkeneko urteotan Besaideko beteranoen irteerak ez du kale egin, eta aurtengo irteera maiatz bukaeran egingo dute, maiatzaren 29an, hain zuzen. Aurten, Iparraldeko eta Nafarroako muga inguruan ibiliko dira, Ibardinen hasi, eta Larrunen hamarretakoa egin eta gero, Lizuniagan amaituko dute ibilaldia. Osteratxo polita egin eta gero, Etxalar jatetxean egingo dute bazkaria, dantzaldi eta guzti. Eta, arratsaldea Beran txikiteoa egiteko aprobetxatuko dute.

Joan den urtean 240 lagun inguru elkartu ziren Aralarren, eta orain dela bi urte Toloñora egin zuten ibilaldia ere oso arrakastatsua izan zen. Aurtengo irteerarako dagoeneko badakigu autobus bat bete dutela, hortaz, interesatuok hobe duzue azkar ibili, izena emateko azken eguna maiatzaren 19a da-eta. Jakizue 36 euro ordaindu behar direla.



Maiatzean mendira joateko bi hitzordu interesgarri egin ditu Besaidek.

Brometarako ez dagoen Santo Tomas Lizeoa, bihar, Atxabalpen

X.U.

Balio handiko garaipena eskuratu zuen Mondrak zapatuan Zumarragan, eta badirudi horrela jarraitzen badu Arrasateko taldeak Liga Txapelketa goialdean amaituko duela. Oraingo asteburuan jaitsiera postuak hurbilegi dituen Santo Tomas Lizeoa izango da Atxabalpen.

Mondra taldea boladaka dabil. Bolada txarra izan zenean, Arrasateko taldeak beherakada handia egin zuen; azkenaldian, baina, txanponaren beste aurpegia gabiltza ikusten, arrasatearrek azkeneko hiru partiduak jarraian irabazi dituzte-eta.

Eta, hasi berri den bolada on horri esker, mondragoetarrak gora begira daude berrero ere. Arrasateko jokalariek hirugarren postuarekin amesten dute, baita UDAREN aurretik geratzearekin ere. Eta, badirudi martxa horretan jarraituz gero helburu horiek betetzea uste baino errazagoa izango dela, Aretxabaleta-ko taldea puntu batera baino ez dagoelako, eta hirugarren postuan dagoen Zarautz bi puntura baino ez. Horretarako, baina, bolada onak jarraipena izan behar



AITOR LIZARRALDE

Mondrak etxean jokatu beharreko azken aurreko norgehiagoka izango du bihar.

du, oraindik ere hamabi puntu daude-eta jokoan.

ATZEAN DAUDENEKIN, KONTUZ

Mondrak jaitsiera postuak oso gertu dituen Santo Tomas Lizeoaren kontra jokatu du bihar. Liga Txapelketa hasieran inork ez zuen esango Donostia aldeko talde hori horren larri ibiliko zenik, lehen jardunaldietan aurre-

ko postuetan ibili zen-eta. Bosgarren jardunaldian lehenak ziren, eta 11. jardunaldian hirugarren postuari eusten zioten. Orduan, baina, taldeak behera egin zuen, eta zelan egin ere. Santo Tomas Lizeoa puntu beharrean etorriko da Atxabalpera, eta eurek arriskatu beharko dute golaren bila joateko. Eta, hori aprobetxatu behar du Mondrak.

FOTOKIROLA





Arrasate-Oñati lasterketa, bihar

Bihar arratsaldean korrituko da Arrasate-Oñati lasterketaren 22. edizioa. Aurten ere Laixan eta AED euskara elkarrekin ibili dira lasterketa prestatzen, eta aurreko edizioetan moduan, seguru aurten ere herritar asko animatuko direla Arrasate eta Oñati banatzen dituzten 11 kilometroak euskararen alde egitera. Lasterketa 18:30ean hasiko da, eta ize-na eman ez duzuenok, lasai, lasterketa baino lehenago horretarako aukera izango da-eta. /X.U.

UME ETA NAGUSIEN DAKO EKITALDI ASKO SAN ANDRESEN

Eguraldiak uste baino gehiago lagunduta, joan den asteburuan San Andresen ospatu zituzten jaietan umeendako eta nagusiendako ekintza asko izan ziren. Buruhandiek hasi zituzten jaiak, eta motorrak berotuta, gainontzeko jolasekin gaztetxoek ederto pasatzeko aukera izan zuten. Maiatzaren Lehena izanda, zapatuan Arrasaten taberna asko itxita egon ziren, eta horrek asko lagundu zion San Andresen gauean egon zen giroari. Domekan, herri probek hartu zuten jaien erreleboa. Mikel Saralegi harri-jasotzaileak erakustaldia egin zuen. Berarekin batera Ruben Saralegi eta Maider Manzidor izan ziren. Argazkian azaltzen da Maider Manzidor, aizkorarekin daukan abilezia eta indarra erakusten. Herri kirolen ondoren auzoko lau nagusienak omendu zituzten; Marina Sanchez Castrok eta Amelia Pinto Romok lore sortak jaso zituzten. Jose Luis Telleria Basterretxeari, berriz, txapela eman zioten. Juan Jose Gorosabel Arangurenekin ezin izan zuten han izan, eta familiakoek jaso zuten saria.





KEPA EZKURRAK KASKOA BEHARKO DU DATORKIONARI AURRE EGITEKO?

Bihar ezkonduko da Kepa Ezkurra, eta koadrilakoek joan den astean egin zioten ezkon aurreko agur afaria. Zapatuan egun pasa joan ziren Nafarroa aldera. Lehenengo Lekunberrin izan ziren, tximinoarena egiten —zapaturkoa- esango dute batzuek—, eta han atera zuten argazkia, kasko eta guzti. Eta, gero, Iruñera joan ziren, parranda egitera. Koadrilakoek ezkondu aurretik gauza bakarra esan gura diote Kepari: Zorionak!!! A! Eta, sasoie eta solomue!!!



JON ARRETxEK DIAPOSITIBA EMANALDIA EGIN ZUEN ASTELEHENEAN UDAL EUSKALTEGIAN

Joan den astelehenean Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleek ezohiko eskola izan zuten. Jon Arretxe idazlea izan zen eurekin, eta *Tubabu* liburuaren gaineko diapositiba emanaldia egin zuen. Egia esan, Jon Arretxeren diapositiba emanaldia aukerazkoa zen; izan ere, gura zuen aukera zuen eskola normala hartzeko, eta barrura sartu ez baginen ere, ez dugu uste bi aukera horiek izanda inork

bigarren aukera aukeratuko zuenik. Jon Arretxe 2001ean argitaratu zuen *Tubabu* liburua. Liburuan kontatzen ditu Afrikan bizikletan ibili zenean bizi izan zituenak. Horrez gain, Afrikako askotariko gizartearen analisisa ere egiten du; bai politikoa, bai kulturala, eta baita soziala ere; betiere bere ikuspuntutik, noski. Zein izango litzateke zuen aukera: eskola egunero bezala ala diapositiben bidez Afrikara bidaia?



Zarraoa lurrindegia

Kanpatorpea 4 behea ARRASATE Tel.: 943 79 12 19



*60 urte bete ditugula ospatzeko oparia emango dizugu
Eta gainera %10eko deskontua
Maiatzaren 17tik 22ra*

*Hiru belaunaldi-
60 urte zuen artean
Eskerrik asko!!!*

ZINEMA/ Asteburuan film eskaintza zabala izango da

Abenturazko film bat, gaztetxoendako beste bat eta Europako iazko sarituena

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, ez da zineklubik egongo. Bihar, zapatua, etzi eta astelehenean, berriz, abenturazko *Océanos de fuego* filma emango dute. Domekan, *Canguro Jack trinca y brinca* filma emango dute gaztetxoendako; eta maiatzaren 14an, *Good bye, Lenin*.

Zoritxarrez gaur ez da zineklub emanaldirik egongo, Amaia Udal Antzokia beste zerbaitetarako erabili behar dutelako. Bihar, zapatua, domekan eta astelehenean, berriz, *Océanos de fuego* (Hidalgo) filma emango dute. Joe Johnston zuzendariak egin zuen, eta 136 minutu irauten du. Zuzendari horrek, besteak beste, *Parque Jurásico III* zuzendu zuen.

Iraganean Arabiako basamortuan egiten zituzten zaldi lasterketak abiapuntu hartuta, abenturazko film dotorea egin du. Frank T. Hopkins *cowboy*-ak xeke baten gizonekin lehiatu beharko du hil edo biziko zaldi lasterketa ikusgarri baten. Irabazteaz gain, bizirik iraun beharko du.

Protagonistak honako hauek dira: Viggo Mortensen (*El señor de los anillos, 28 días...*); Omar Sharif (*The parole officer...*); Adam Alexi-Malle (*El hombre que nunca estuvo allí...*), eta beste batzuk.


KANGURU ERRALDOI BAT, BIDEAN

Domekan, *Canguro Jack trinca y brinca* filma emango dute, 17:00etan. Gaztetxoei zuzendutako komedia da eta David McNally zuzendariak egin du. 89 minutu irauten du.

Charlie eta Louis delitugile bilakatu dira. Diru poltsa bat lapurtu ostean, Australiako basamortuan kanguru erraldoi batekin topo egingo dute, eta kanguruak poltsa lapurtuko die.

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 14an, *Good bye, Lenin* filma emango dute, 20:30ean. Wolfgang Becker zuzendariak egin du, eta 121 minutu irauten du.

Ekialdeko Alemaniako emakume komunista batek bihotzkoa izango du. Justu, Berlingo horma bota egin dute, eta kapitalismoa ezarri da. Emakume horren semeak ez dio aldaketa horien berri eman gura.



Good bye, Lenin komediak 2003ko Europako film onenaren saria irabazi zuen.

ARRASATE PRESS

BODY JAM

AEFA / Body Training Systems



IRUDI SPORT

Uarkape 2, behea. ARRASATE.

Tel.: 943 77 20 87

irudisport@telefonica.net

Ordutegia: 07:30 - 21:30

BODY JAM jai ikaragarria da!

BODY JAM hainbat mugimendu eta estiloren nahasketa zoragarria da: funka, groovea, erritmo latindarrak, karibetarrak, street dancea, technoa, hip-hopa, discoa, jazz...

BODY JAM esperientzia ikaragarria da. Dantza, musika, mugimendua eta jai-giroa... Guztia batean!

BODY JAM edonork egin dezake, ondo pasatzea gustuko ez dutenek bakarrik dute debekatuta.

Berriro ere, lehenak gara!



Kontzertuek, antzezlanek eta gastronomiak garrantzi handia izango dute.

KULTURA EGITARAUA/Extremadurako kulturaren gaineko hitzordua

Corazon de Encinak XIV. Kultura Astea antolatu du

IKER BARANDIARAN

Corazon de Encina Extremadurako elkarteak XIV. Kultura Astea antolatu du. Bihar, zapatua, hasi eta maiatzaren 16ra arte egingo dituzte ekitaldiak. Besteak beste, gastronomia, musika, jokoak, lehiaketak, antzerkia eta *play-back*-a izango dira.

Corazon de Encina elkarteak, hamalagarren aldiz, aste kulturala antolatu du. Bihar, zapatua, hasi eta maiatzaren 16ra arte egingo da zer ikusi, jan eta entzun elkarteak San Andresen duen egoitzan.

Dagoeneko egina dute kultura astearen egitaraua, eta besteak beste, Extremadurako herri eta pertsonaien gaineko historia batu dute (Quintana de la Serena...). Horrez gain, Garizumako gisatua eta bakailao rapapaloak jaki tipikoak zelan egin daitezkeen azalzen dute.

KARAOKEAREKIN HASIKO DIRA

Bihar, zapatua, karaokea egingo dute, 19:30ean. Etzi, elkartearen erregina eta ohorezko bi damak aukeratuko dituzte. 19:30ean egingo dute eta bazkide guztiek bozkatu ahal izango dute. Astelehenean, argazki zaharren erakusketa ipiniko dute, eta kultura astea bukatu arte ikusgai egingo dira.

Martitzenean, maiatzaren 11n, 25 urte baino gutxiago dituztenenak marrazketa eta margo lehiaketak egingo dituzte.

Horrekin batera, idazlan eta poesia lehiaketa antolatu dute. Elkar-tearekin, Extremadurarekin eta Euskal Herriarekin lotura izan beharko dute.

Eguaztenean, elkartearen gazteek mahai-futbola eta beste joko batzuk egingo dituzte, eta txokolate-jana egongo da. Eguenean, Extremadurako joko tipikoak egingo dituzte. Bi egunetan 18:00etan egingo dute hitzordua.

Egubakoitzean, 18:00etan, helduek eta gaztetxoek jokoak egingo dituzte. 19:30ean, Santiagora erromesaldiaren gaineko berbalak egingo dute. 21:00etan, saiheski-jana egingo dute; eta 23:00etan, antzerki emanaldia elkartearen Amanecer Extremeño taldearen eskutik. 00:00etan, elkartearen Isabel Sanchez eta Isabel Fernandezek flamenko kontzertua egingo dute.

*Kultura asteak
bihartik, zapatua,
maiatzaren
16ra arte
iraungo du*

*Egitarauan,
gastronomia,
musika, antzerkia,
lehiaketak eta beste
antolatu dituzte*

Lagun mordoa batuko dira

Corazon de Encina elkarteak 145 bazkide ditu, baina horien senitartekoak, azken baten erabiltzaileak direnak, batzen baditugu, 600 lagun inguru dira. Elkartearen bazkideez gain, ibarreko beste hainbat lagunek ere esku hartzen dute elkartearen ekintzetan. Horiez gain, kultura asteko ekintzetara Ermuko eta Gasteizko lagun mordoa hurbilduko dira.

Datorren egubakoitzean, elkartearen Amanecer Extremeño taldeak Valle de la Serenako bi saineke antzetzuko ditu: *Mi ojito derecho* eta *La herencia del tío Aurelio*. Horren ostean, Arrasateko beste bi bazkideek flamenko kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, kontzertua egingo du Bandak Tarragonan

I.B.

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kontzertua egingo du Saloun (Tarragona). Emanaldia Fuente Inmaculadaren plazan egingo dute, 20:00etan, eta pieza ezagunak joko dituzte.

Aspaldiko partez, Arrasateko Musika Eskolako Bandak irteera luzea egingo du. Bihar, zapatua, Salouko Fuente Inmaculada plazan kontzertua egingo du, 20:00etan. Besteak beste, Bandak honako piezak joko ditu: *Gure zaindaria*, *San Juan himnoa*, *Gora Arrasate*, *Fandango arinarin*, *Los siete magnificos*, *Star Wars saga*, *See you later alligator* eta *Manbo nº 5*.

Gaur, egubakoitza, irtengo da Banda Arrasatetik, eta bihar kontzertua eman ostean, etzi, domeka, Portaventuran igaroko dute eguna. Domeka gauean Arrasaten izango dira bueltan.

BIDAIA LUZEENA, HAMAR URTEOTAN

Arrasateko Musika Eskolako Banda Jose Ramon Vitoriak sortu zuen, 1994an. Herriko jai nagu-

sietan esku hartzeko erabakia hartu zuten. 1996an, Eduardo Artzamendik taldearen zuzendaritza hartu zuen, eta taldearen bultzada eman zion: Musika Eskolako 25. urteurreneko ospakizunetan esku hartu zuten, eta Gabonetan eta San Juanetan kontzertuak eman zituzten.

2002-2003 ikasturtean, Jose Ramon Elkoro arduratu zen Bandako zuzendaritzaz.

BANDA, HAZKUNDE PROZESUAN

Gaur egun Banda hazkunde prozesuan dago, bai musikariei dagokienez —60 bat kide dira—, bai ekintzen aldetik ere. Bandak bi funtzio nagusi betetzen ditu: batetik, Musika Eskolako Banda da, eta hortaz, helburu pedagogikoak ditu; eta bestetik, Arrasateko Banda den heinean, herriko ekitaldi eta ospakizun garrantzitsuetan esku hartzen du. Aspaldi honetan taldeko zuzendaria Iker Olazabal da.

Lehenengo aldia da Banda 1994an berriro sortu zutenetik horrelako irteera luzea egiten dutena. Bandako musikariek ilusio handiz hartu dute bidaia hori egiteko ekimena.



Irudian, Arrasateko Musika Eskolako Banda kontzertu baten.

Ramon Arantzabalek margolan erakusketa ipini du Oñatin

I.B.

Gaur, egubakoitza, Ramon Arantzabal margolari arrasatearra erakusketa ipini du Oñatiko kultura etxean. Maiatzaren 16ra arte izango du ikusgai *Espazioak amets egiteko* erakusketa.

Ramon Arantzabal margolaria arrasatearra da, baina aspaldian Arrasatetik kanpo bizi da. Gaur, egubakoitza, erakusketa ipini du Oñatiko kultura etxean.

Espazioak amets egiteko erakusketa maiatzaren 16ra arte egingo da ikusgai. Erakusketa

egunero egingo da zabalik, 18:30etik 20:30era.

Ramon Arantzabalek ibilbide luzea du margogintzan, eta bakar-kako hainbat erakusketa egin ditu: Bergarako Errotalde jauregian, 1999an; Arrasateko Harresi aretoan, 1999an; Bergarako Nahikari tabernan, 2001ean; Donostiako San Vicente koltxoidendan, 2001ean; eta Donostiako Kutxa Boulevarden, 2001ean, hain zuzen ere. Hainbat talde erakusketatan ere esku hartu du.

Arte kritikari batzuen ustez, Ramonen lanek zerikusia dute Errusiako konstruktibismoarekin eta espresionismoarekin.

E, TXO!

ELKARRIZKETA

FJORD/MUSIKA TALDEA

“Gure emaitzak ez dauka Etsaiak, Ekon eta Su Ta Gar-ekin zerikusirik handirik”

IKER BARANDIARAN

Fjord taldea arrasatear batek —Ekon taldeko Juan—, bi ondarrutarrek —Etsaiak taldeko Mikel eta Keu— eta arantzar batek —Su Ta Gar taldeko Iban— osatzen dute. Gaur, egubakoitza, gaztetxean joko dute, 22:30ean.

Zelan izan zen Fjord sortzeko prozesua?

Lau lagunok aspaldi ezagutzen genuen elkar, kontzertuetan ikusita. Laurok oso ipurterreak gara, eta berba eginda genuen zerbait batera egitea. Nik neuk (Juan) Keuren Uek proiektuan esku hartu nuen. Etsaiak eta Ekon bertan behera gelditu zirenean, denbora luzeagoa genuen, eta lanean hasi ginen. Elkarrizketak bidaltzen hasieran; gero, 2003ko San Juanetan Arantzako baserri baten astebete egin genuen; eta horren ondoren, diskoa grabatu genuen.

Aurreko taldeetan egiten zenutenarekin apurtu gura zenuten?

Ez da hori, baina guztiok geneuzkan aurreko taldeetan erabiltzeko proposak ez ziren kantuar edo ideiak. Horiek batu eta garatu egin ditugu, eta emaitzak ez dauka ez Etsaiak, ez Ekon ezta Su Ta Gar-ekin zerikusirik.

Zer eskaini gura dio Fjordek Euskal Herriko rockari? Eta zergatik da hain musika eskaintza zabala?

Ez gara talde berritzaile bat, ez dugu musika estilo berririk egiten, baina Fjord entzuten duenak musika estilo eta nabardura asko aurkituko ditu. Abesti guztiak zentzu antzekoan bideratzeko ezintasuna dugu, eta ez dugu hori egin gura. Abestiak gutxi gorabehera lauron artean egin ditugunez, igartzen da sorkuntza guztia ez datorrela leku beretik. Abestiei norik bere ukitu propioa emateko askatasuna du, eta horrek aniztasuna indartu du.



GORKA MORRAS

“Aurreko taldeetan erabiltzeko proposak ez ziren ideiak batu eta garatu ditugu”

Ez da ohikoena talde batek zuzenean jo barik diskoa grabatzea eta dozenaka kontzertu hitzartuta izatea...

Asko harritu gaitu. Grabatzeraz sartu aurretik kontzertu bat genuen hitzartuta. Pentsatzen dut jendeak gure aurreko taldeetan edo guran konfiantza due-

“Zuzenekoetan diskoan dagoena entzungo duzue, eta kontzertu bortitzak emango ditugu”

la, eta hori presio handia den arren, pozgarria da. Abuztura arte, 22 kontzertu ditugu. Hala ere, nabarmendu gura dugu ez dagoela gure aurreko taldeekin antzekotasun handirik. Zuzenekoetan diskoan dagoena entzungo duzue, eta saiatuko gara kontzertu bortitzak egiten.

“Ez dakigu Fjordek zenbat irauongo duen, baina gure preferentzia da, eta eutsi egingo diogu”

Talde hau ez da behin-behineko proiektua eta jarraitzeko asmoa daukaguz, ezta?

Bai, gure taldea da. Ez dakigu zenbat irauongo duen, baina gure preferentzia nagusia da, eta honi eutsiko diogu. Gutxienez beste disko bat grabatzeko asmoa daukagu.

BI KONTZERTU ASTEBURUAN GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Fjord eta Keike taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean. 22:30ean izango da. Eta bihar, zapatua, Ira eta Nabari taldeek joko dute, 22:30ean. Bi kontzertuek berdina kostatuko dute, hiru euro.

UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Txatxilipurdi elkarteak udaleku irekiak antolatu ditu 2 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzako. Interesa duten gaztetxoek edo gurasoek ekainaren 18a aurretik eman beharko dute izena. Horren harira, anai-arrebek izena emanez gero, hiru euroko deskontua izango dute. Txatxilipurdi elkartearen (Pablo Uranga 4) argibide gehiago emango dituzte.

‘GOMENDATZEN DIZUT’ BIDAIEAN LEHIAKETA

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gazte informazio bulegoek lehiaketa berezia antolatu dute. Oporretatik bueltan, oporretan ikusitakoaren eta bizitakoaren gaineko gomendioak jasotzeko lehiaketa asmatu dute. Parte-hartzaileek ekainaren 14tik irailaren 24ra aurkeztu ahal izango dituzte gomendioak hiru gazte bulego horietan. Eta irailaren 30ean, Arrasaten esku hartzen duten lagunen artean zozketatuko dute bi lagunendako asteburua landetxe baten. Oñatin eta Bergaran gauza bera egingo dute.


Lehiaketa horren bitartez, bidaiariak ezagutu dituzten ostatu, leku, herri, mendi, aterpe, ibilbide edo dena delakoaren gaineko gomendioak emango dituzte. Informazio guztia gazte informazio bulegoetan izango dute, gura duenarentzako eskuragarri.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

 **KONTRATAK**
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Arantza Aranzabal

JOSE ARANZABAL SUKALDEAK

XABIER URZELAI

Jose Aranzabalek zabaldu euen oin dala urte batzuk bere izena dauken negoziue. Eta, egun, bost anai-arreba dabitz bertan lanien. Arantzak sukaldien dendan egiten dau lan, San Andresen. Diseñue ikesi euen Arantzak, eta ikasitakue lanien ibiltteko aukerie eukitten dau. Berakin egon gare barriketan.

Ze falta jako Mondragueri?

Komertziuen inguruen bizitasun haundixae. Ez daille kanpora jueteko biherrik egon.

Eta, ze dauko ona?

Potentzial haundixe daukon herrixe dala. Kooperatibie, unibertsidadie...

Ze falta jatzu zeuri?

Denbora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Batzuetan, lana.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

La joven de la perla / El principito / Zaratie ez dan edozen gauza gustetan jat.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Italiara. Oin dala bi urte egon nintzen han, eta emozionaute etorri nitzen, asko gustau jaten-eta.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Etxekolanak egitteko ez dot problema haundirik eukitten.

Tranpan ibilttekotan norbaitekin, zeinekin?

Ez dakit ba! Aspaldi ez dauket eta aktorien berri!

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Jentie ilusiñuekin etortie. Lana ondo egitteko asko igerten da hori, azken baten, jentien ilusiñue pegau egitten jaku-eta.

Denbora librien ze egitten dozu?

Leidu.

Kapritxo bat.

Biajeren bat egittie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Mendi aldera juengo nitzake, leku trankil batera.



X.U.

"Jentie ilusiñuekin etorten danien igerri egitten dogu, eta lanerako asko lagunketan dau"

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguek askoz be bizittasun hanundixae daukola, eta bertako herritarrek biher dauen dana herrixen bertan topau leikiela.

Ze egitten dozue Jose Aranzabal Sukaldeak dendan?

Izenak esaten dauen moduen, orokorrien, sukaldiek saldu. Jentiek daukon biherren arabera gauza diferentiek ofreziduten dittugu, proiektuek egin, diseñau...

Esango neuke aspaldi honetan sukalde on baten baiño gurau dogule dirue beste zeozertan gastau.

Izen leike, ohitturak be aldatu egitten die-eta! Baiñe danetik dau.

"Klase askotako sukaldiek dauz: diseño aldetik, kolore aldetik, materixal aldetik..."

Etxie txukun eukittie gure daue-nak eta sukaldiei inportantzia emun gure dutzonak ez dau problemarik eukitten sukaldien dirue gastetako.

Zelako sukaldiek saltzen dittuzue?

Klase askotako sukaldiek saltzen dittugu. Lehen, gehixenak antzerakuek zien, baiña gaur egun geruau eta bariedade haundixae dau, eta hori asko gustetan jat neurri. Diseño aldetik, materixal aldetik, kolore aldetik...

Zeure ustez, ze egon biher da derrigor gaur egungo sukalde baten?

Lehen sukaldietan egon biher zan gauza bera: umore ona!

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Ortiz de Mendibil

Finlandiara / 2004ko apirilean

Kemirako bidean utzi genuen Gorka joan den astean, *Sampo* izeneko *icebreaker* itsasontzian. Egun pasa egin zuten itsasontzian; tamalez, eguraldi txarra izan zuten: "Eguraldiak ez zigun gura beste gozaten utzi. Argazkiak ateratzen ahalegindu nintzen, baina egiten zuten eguraldiarekin... Egia esan, hotz apur bat ere pasa genuen". Nahiz eta eguraldi txarra egia eta nahiz eta itsasoa izoztuta egon, Gorkak ez zuen uretara sartzeko aukerarik galdu: "Ur-jantzi berezi batzuk jantzi eta itsasoan igeri egin ahal izan genuen. Itsasoa izoztuta zegoen, baina itsasontziak hautsi-tako izotz artean ibili ginen. Hasierako minutuetan arraro sentitzen nintzen, gorputza ezin nuen-eta gura bezala mugitu, baina berehala ohitu nintzen. Egia esan, ez genuen igeri larregi egin behar, ur-jantziak ur gainean egoten laguntzen zigun-eta".

Ordu laurden inguru egin zuten Gorkak uretan: "Ez nuen hotzik pasatu, ikusi egin behar zen zelako ur-jantziak ziren". Itsasontzian bidaiatu eta gero, Kemin, *icecastle* edo izotzetzko gaztelua ikustera joan ziren: "Ikusgarria da, baina gehiago espero nuen. Gaztelua ei da, baina ez dauka gaztelu itxuririk. Hotel moduko bat da, eta bertan lo egiteko aukera dago, baina nik ez nuke horrelakorik egingo, barruan sekulako hotza egiten du-eta." Astebete Ravaniemin egin eta gero, neskalagunaren gurasoak Arrasatera bueltatu ziren, eta Gorka eta neskalaguna Kokkolora itzuli ziren: "Hurrengo astean lasai ibili ginen, deskantsua hartzen. Neskalagunak, gainera, eskolara joan behar zuten, eta ni Kokkoloko inguruak ezagutzen ibili nintzen".

Azkeneko asteburua Helsinkin igaro zuten, Gorkak domekan zeukan-eta hegaldia: "Harrituta geratu nintzen, bi aste lehenago izoztutako itsaso gainean zegoen izotzik". Akaso, hura izan zen bidaiako momentu txarrena: neskalagunari agur esan, eta etxera buelta.

XABIER URZELAI



Gorka izotz artean uretan, ur-jantzi berezia jantzia.

"Izotzetzko gazteluan ez nuke gaurik igaroko; hotz egiten zuen"



Maiatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

Hilabete honetan kolorearen osteko distira tratamendua doan

ZAHARREN ETXETIK

Juana Caceresek 99 urte bete ditu, eta Dolara baserriko Patxi Egidazuk 102 urte

IKER BARANDIARAN

Azken egunotan, Arrasaten bizi diren bi lagunek urtemuga bereziak egin dituzte. Batetik, Juana Caceresek 99 urte bete ditu; eta bestetik, Udako Dolara baserriko Patxi Egidazuk, 102 urte. Biak hala biak osasuntsu eta sasoiok daude, eta familiaratean ospatu zituzten urtebetetzeak.

Joan den egubakoitzean, apirilaren 30ean, Juana Caceresek urteak bete zituen. Quintana de la Serenan (Badajoz) jaio zen Juana, baina orain dela 42 urte Arrasatera etorri zen bizitzera. Ordutik Bizkaia etorbidean bizi da, alaba Josefarenkin batera.

Juana aspaldi alargundu zen, Espainiako gerraren aurretik. Berak bakarrik sei seme-alaba hazi behar izan zituen. Juanak ondo gogoratzen du gerra hori, eta sasoi hartan zuen dena kendu ziotela azaldu zigun. Semeetako bat gerra hasi zen egun berean jaio zen, eta beste bat Francoren indarrek Madril hartu zutenean. Ondo gogoratzen du hori.

LANEAN IBILI DA BETI

Alargun eta sei seme-alabekin, Juanak lan handia egin behar izan zuen. Olibak jasotzen ibili zen, txerri-hilketak egiten, fatxadak zuritzen, josten, garbiketarak egiten, eta abar. Juanaren esanetan, hori da luze bizi izateko gakoa: lan egitea, alegia.

Sei seme-alabez gain, hogeita biko eta hamazazpi birbiloba ditu. Are gehiago, hamazortzigarrena bidean dator. Senitarteko guztiendako arropak egin ditu Juanak, eta horietako asko Juanak berak zaindu ditu.

Orain dela 42 urte Arrasatera etorri zen, hemen seme-alaba batzuk bizi dira eta. Arrasate gustuko du, eta mundu guztiarekin oso ondo konpondu dela diosku. Bizkaia etorbidean oso gustura bizi dela esan digu.

Juana osasuntsu dago, eta orain arte behin bakarrik ospitaleratu dute. 1992an izan zen, eta egun gutxi egin zituen ospitalean. Egu-



Juana Caceres oso pozik bizi da Arrasaten, familiaratekoekin.

raldi ona egiten duenean, kalera irteten da paseoan. Bestela, etxe barruan geldirik ezinik ibiltzen da. Ohea berak egiten du, bere kasa dutzatzen da, eta utziko baliote etxean gauza gehiago egingo lituzke, baina alabak ez dio uzten, lan

larregi egingo da eta. Kontua da orain dela bi urte ikusmen urria daukalako kakorratza egitea debekatu ziotenetik, aspertu egiten dela. Ez du inoiz siestarik egiten, eta denetarik jaten du. Horrez gain, egunero bazkalostean kafesnea

hartzen du. Juanak alabetako bati adarra jotzen dio ezin duelako gatzik hartu; Juanak bai, gatzarekin jaten du.

Urtero Quintana de la Serenako senitartekoei bisita egiten die, eta aspalditik, ahizpa hil zitzaionetik, doluzko jantzia ez ibiltzen da. Juanarentzat ohitura bilakatu da, eta eroso dago.

Bere amona Juana 103 urterekin hil zen, eta Juana Caceresek beti amona hura miretsi zuen.

PATXI EGIDAZUK 102 URTE, SASOITSU
Apirilaren 25ean, Udako Dolara baserriko Patxi Egidazuk 102 urte bete zituen. Sasoiak dago Patxi, eta familiaratean ospatu zuen urtemuga. Zorionak, bie!!

Juana Caceresek egunero ohea egiten du, denetarik jaten du eta familia handia dauka

Patxi Egidazu mutilzaharra da, denetarik jaten du eta jenio bizia dauka

LABUR

Kiroldegiko bazkarirako txartelak eskuragai

Maiatzaren 29rako, SUDCeK eta Udalak herriko erretiratuetarako bazkari erraldoia antolatu dute Musakolako kiroldegian. Dagoeneko eskuragai daude txartelak herriko erretiratuen elkarteetan. Bazkideek euren elkarteetara jo dezakete. Maiatzaren 20a izango da azkeneko eguna.

Osasunarendako kaltegarria ez den kirola berbagai

Eguaztenean, maiatzaren 12an, osasunarendako kaltegarria ez den kirola berbagai izango dute Uribarriko erretiratuen elkarteak. 17:00etan egingo dute, eta hizlaria Asun Palacios izango da. Palacios Gipuzkoako Erizainen Eskolako kide da, eta hainbat aholku emango ditu.

Uribarri elkartetik Nafarroara txangoa egingo dute

Maiatzaren 20an Uribarri elkarteko erretiratuek Nafarroara txangoa egingo dute. Besteak beste, Iruñera joango dira. Martitzenean, hilaren 11n, egingo dute zozketa. Exkartzaren erretregian bazkaldu eta dantzaldia egingo dute, eta hainbat opari banatuko dituzte: Nafarroako ardoa, eta abar.

1936an jaiotako emakumeen urteroko hitzordua

Maiatzaren 22an, 1936an jaiotako emakumeen urteroko hitzordua egingo dute. 13:00etan meza izango dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Gero, bazkaria egingo dute Musakola hostalean. Interesatuek Muruamendiaraz gozotegian eman beharko dute izena, eta 10 euro ordaindu.



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

gaztemenuak
preziositateak


egin zure sukera

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfombra
Gortinak, mahaia eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



ARRASATE
Maialen Lopez
Apirilaren 26an, 17 urte.
Zorionak! Mesedeetako Ama-
ko lagunaren partetik.



ARRASATE
Lorea Berezibar
Maiatzaren 11n, 5 urte.
Urte askotarako! Aitaxo,
amatxo eta etxeokak.



ARRASATE
Agustin Berezibar
Maiatzaren 10ean, 5 urte.
Urte askotarako! Etxeko-
ak.



ARRASATE
Aizpea Otxandiano
Maiatzaren 5ean, 20 urte.
Zorionak, *panpox!* Lagun
ezkutua.



ARRASATE
Juan Mari Lagunilla
Apirilaren 30ean, urtebete-
tzea. Zorionak, Txominen,
Oxelen eta Izaroren partetik.



ARRASATE
Ametz Vela
Maiatzaren 8an, 8 urte.
Zorionak! Susiren, Txema-
ren eta Unairen partetik.



ARRASATE
Eneko Fuentes
Maiatzaren 9an, 2 urte.
Zorionak! Aitaitaren eta
amamaren partetik.



ARRASATE
Beñat Iturriotz
Maiatzaren 10ean, 6 urte.
Zorionak! Etxekoaren parte-
tik.



ONATI
Mikel Saiz
Maiatzaren 8an, 32 urte.
Zorionak! Goienako lanki-
deak.



ARRASATE
Alberto Nieves
Maiatzaren 7an, urtebete.
Zorionak! Katiren eta Uso-
aren partetik.



ARRASATE
Eneko Parra
Maiatzaren 8an, 2 urte.
Zorionak! Gurasoen par-
tetik.



ARRASATE
Maider Uribetxeberria
Maiatzaren 12an, urtebe-
tzea. Zorionak! Familia-
koen partetik.



ARRASATE
Iker Zubia
Maiatzaren 4an, 27 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Ibai Ormaetxea
Maiatzaren 11n, 3 urte.
Zorionak! Aitaxo, amatxo
eta Amets.



ARRASATE
Nerea Atxa
Apirilaren 29an, urtebete-
tzea. Zorionak! Lankideen
partetik.



ARRASATE
Amets Beltran
Maiatzaren 4an, 26 urte.
Zorionak, potxoli! Sima!
Amatxo, Josu eta koadria.



ARRASATE
Aner Gallardo
Maiatzaren 14an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO
Eneko Arregi
Maiatzaren 5ean, urtebe-
te. Zorionak! Familiaren
partetik.



ARRASATE
Lorena Andres
Maiatzaren 7an, 23 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat! Etxekoak.



ARRASATE
Ane Cabrera
Maiatzaren 5ean, 9 urte.
Zorionak! Ahizpa eta aita-
ama ponteokak.



ARRASATE
Enaitz Sagasta
Maiatzaren 7an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia bueltatu egingo dizugu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Komeni da argazkia urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Nork idatzi du Arrasateko industriaren gaineko liburua?
Arrastoa: martxoan aurkeztu zuten liburua.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

San Miguel garagardoa
12X25 cl

3,60€ 599 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

DANE LEUNDArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Dane!
Galderen erantzun zuzena:
San Isidro elizan.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko futbolaren gainbehera eta gorakada

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...' / J. LETONA

Aurreko asteko kapitulua amaitu genuen esaten 67-68 denboraldian Arrasateko futbolaren gainbehera hasi zela. Hori hala izan zen, baina esan beharra dago, era berean, horren aurreko denboraldia aipagarria izan zela. Besteak beste, sasoi hartan atera ziren Arrasatetik Realean jokatu zuten jokalarietako batzuk: Sagasta, Aranbarri, Inaxio Kortabarria... Larraurik, adibidez, Real Madrilen jokatu zuten.

Edozelan ere, esandako moduan, 67-68an Arrasateko futbolaren gainbehera hasi zen. Jose Martinez de Ubago zen presidentea, baina, nekatuta eta etsituta, taldea utzi zuen hark. Marteatzek hartu zuen haren lekua. Hala, 68-69tik 75-76ra bitartean, taldea ia hondoratu egin zen, harik eta gazte jendea sartu eta haiek taldea indartu zuten arte. Luis Lopez *Bonba* zuten orduan entrenatzaile. Herrien arteko lehiaketetan jokatu zuen Mondrak, eta ia preferente mailara iristea lortu zuten. Partidu bakarra irabaztea falta zitzaien hori lortzeko, Zumarragako Urola taldearen kontra. Baina, zoritxarrez, galdu egin zuten partidu



Mondragon Club de Fútbol taldea gainbeheraren urteak baino lehenago.

hura. Hala, harrezkero, zenbait urtez lehenengo erregional mailan jokatu zuten.

74-75 denboraldian zuzendaritza aldaketa izan zen: Marteatxe joan egin zen eta Pablo Zubillagak hartu zuen taldearen gidaritza. Taldea eraldatzen

Urte gogorrek pasa zituen Mondra taldeak, 68-69 denboralditik 75-76ra bitartean

ahalegindu ziren denboraldi hartan, baina ez zuten lortu; eta gainera, justu-justu eutsi zion taldeak mailari. 75-76an, aldaketak egin zituzten taldean: besteak beste, kanpoko jokalaririk ekarri zituzten. Baina horrek ere ez zuten ezer konpondu, eta zuzen-

daritzak kritika gogorak entzun behar izan zituen.

BESTE TALDE BAT HERRIAN

Bestelakoak aipatuz, esan beharra dago sasoi hartan beste talde bat sortu zela Arrasaten: CD Makatzena. Gazteen bigarren mailan jokatzeko hasi zen, baina gazteen lehenengo mailara igotzea lortu zuen. Bi denboraldi geroago, erregional preferente mailaraino iritsi zen taldea.

Mondra taldearen gainean, berriz, esan beharra dago 76-77 denboraldian hasi zela taldearen gorakada, Jose Luis Idigoras entrenatzailearen gidaritzapean. Nuñez, Barberan, Arrieta eta halako jokalaririk zeuden taldean. Bi urte geroago mailaz igotzea lortu zuten. Hori baino lehen, baina, CD Makatzena eta Mondrak bat egin eta talde bakarra sortu zuten.

BI TALDEAK BAT

Hala, lehen aipatutako jokalariei, besteak beste, Arrotxa eta Viguri gehitu zitzaizkien. *Bonba*-k hartu zuen taldearen gidaritza. Batetik, lehenengo erregional txapeladunorde izan ziren; bestetik, Irungo Palmiraren kontrako partidua irabazi eta erregional preferente mailara igo ziren.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko maiatzaren 7a / 107. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Herriko hiru lekutan lapurrak ibili dira egunotan

UBANE MADERA

Azken egunotan herrian lapurreak eta lapurreta saiakerak izan dira. Hiru lekutara sartu dira: kultura etxera, Anboto tabernara eta okindegira. Anboto tabernan egin dute lapurretarik handiena. Kultura etxetik ez dute ezer eraman, eta okindegitik kolonia pote bat. Kontuz ibiltzea komeni da.

Kultura etxean asteburuan sartu ziren lapurrak. Astelehenean ateko sarraila apurtuta zegoen. Merte Mondragon alkateak jakinarazi digunez, uste dute lapurrek KZGuneran sartu nahi zutela. Baina haraino iristeko beste bi ate zabaldu behar zituzten eta ez zuten hori egiterik lortu. Hala, kultura etxetik ez zuten ezer lapurtu eta ez zuten bestelako apurketarik egin.

Bestalde, astelehen gauean okindegian eta Anboto tabernan sartu ziren lapurrak. Okindegian ez zuten gauza handirik lapurtu. Kontatu digutenez, okindegiaren ondoko lanetatik sartu ziren, okindegiko bulegoaren kristala apurtuta. Baina han barruan ez zegoen ezer lapurtzeko, eta kolonia pote bat besterik ez zuten eraman.

Anboto tabernatik, berriz, ez ziren esku-hutsik atera. Tabernaren atzeko partetik sartu ziren,



UBANE MADERA

Anbotoko kristala apurtzeko, lehenengo leiho-ateak zabaldu behar izan dituzte.

kristala apurtuta. 600 euro dirutan, telefonoa, eta presoan eta herriko bi lagunak aldeko itsulapikoak eraman zituzten. Baina larriena zera da: tabako makinako giltzak ezkutuan zituztela tabernakoek, eta, lapurretaren ostean, makinan ipinita agertu zirela. Horrek esan nahi du, seguru aski, lapurrek bazekitela Anbotokoek non gordetzen zituzten giltzok. Gainera, lapurrak tabernara sartu ahal izateko, lehenago prestakuntza lanak egin behar izan dituzte. Izan ere, tabernaren atzeko aldeko leihoak egurrezko leiho-ateekin daude babestuta, eta kanpotik ezin dira zabaldu.

Kaltetuek salatu egin dituzte lapurretak. Ea, bada, orain Ertzaintzak zerbait argitzen duen. Bitartean, kontuz ibili.

Kaltetuek salatu egin dituzte lapurretak. Ea, bada, orain Ertzaintzak zerbait argitzen duen. Bitartean, kontuz ibili.

Eguneko zentrora joateko garraioak ika-mikak piztu ditu

Eguneko zentrora joateko garraioa berabai izan zuten joan den aste-ko osoko batzarrean. Hiru puntu-ko idatzia egitea erabaki zuten: argi uztea lan hori Diputazioaren kompetentzia dela; jakinaraztea Gurutze Gorria gertu dagoela zerbitzu hori egiteko; eta gainerako koardilekin konparatuz, Zuiakoa diskriminatu egiten dutela. Udalaren asmoa da gai hori Batzar Nagusietara eramatea, haiek erabaki dezater zeinek daukan arazoia.

Eguneko zentroraren garraioari dagokionez, kontua da orain arte Udalak hartu duela horren ardura. Baina, berez, uste duela

Diputazioaren ardura izan beharko lukeela; izan ere, eguneko zentroraren zerbitzua Diputazioarena da. Gauzak horrela, 2003ko uztailan Udalak utzi egin zion garraio-az arduratzeari eta horren ondorioz, Aramaiotik eguneko zentrorra joaten direnek eurek ordaintzen dute garraioa. Gainera, Udaletik jakinarazi digute orain aukera dagoela eguneko zentrorra beste bi aramaiotar joateko, baina, Diputazioak esandakoaren arabera, garraioaren arazoa konpondu arte ez dute hori beteko.

Horrez gain, osoko batzarrean landutako gaien artean, era-

baki zuten dirua eskatzea Diputazioari Marixeka eta Andra Mari parkeetarako. Osakidetzari, berriz, ambulatarioko leihoak eta pertsianak konpontzeko eskatuko diote dirua.

UREN FAKTURAZIOA

Bestelako gaien artean, Udalak jakinarazi digu uren fakturazioa hilabete honetan gazteleraz bidali dutela. Kontua da sistema informatikoa aldatu egin dutela eta horregatik egon dela arazoa. Dena dela, gaineratu dute datorren hilean euskaraz bidaltzen ahalegin-duko direla.

Motorretan erabilitako olioak batzen hasi dira

U.M.

Automobiletan, traktoreetan eta motordun bestelako tresnetan erabiltzen den olioak batzen hasi dira Aramaion. Olio hori birziklatzera eramango dute gero. Iturroste garajeen batuko dute olioak. Arabako Foru Aldundiak Udalaren laguntzarekin abiarazitako ekimena da.

Aramaioko Udaletik jakinarazi digutenez, dagoeneko abiarazi dute erabilitako olioak batzeko zerbitzua. Asmoa da olio hori batu eta birziklatzera eramatea, berriro ere motorrendako olio erabilgarri bihurtzeko.

Izan ere, oraingoan, motorrek erabiltzen duten olioak bakarrik batuko dute Aramaion; automobilek, traktoreek eta motordun

bestelako tresnek erabiltzen duten olioak, hain zuzen ere. Hala, olio hori baserrian aldatzen duenak aukera du orain, erabilitako olioak potoren batean batu eta Iturroste garajea eramateko. Han gertu dituzte 2.000 litro inguru hartzeko bi bidai. Eta gero, Ekinoil enpresak hartuko du olio hori, birziklatzera eramateko.

Arabako Foru Aldundiko Ingarumen Sailak abiarazitako ekimena da.

LASTER ETXEKOAK

Udaletik gaineratutakoaren arabera, orain motorren olioak batzen hasi dira, baina, laster etxean erabilitako olioak ere batzen hasteko asmoa dute, haiek ere birziklatu egiten dira-eta. Edozelan ere, datorren egunotan, Udalak herritarrei informazio zuzena eta zabalbidelikoa diela esan digute.

LABUR

Briska, mus eta tute txapelketak jokatu dituzte erretiratuen elkarteak

Joan den apirilaren 28an, San Prudentzio eguna zela-eta, briska txapelketa jokatu zuten erretiratuen elkarteak. 16 bikotek parte hartu zuten eta Felisa Aspe eta Lorenza Beitia gailendu ziren. Bestalde, maiatzaren lehen, mus eta tute txapelketak jokatu zituzten. Sei bikotek jardun zuten musean eta Benito Altuna eta Feliciano Uribarren gailendu ziren. Tutean, berriz, bi bikotek parte hartu zuten eta Jose Mari Arias eta Manuel Godoyk irabazi zuten. Irabazleei kopa eta txanpan botila eman zieten; bigarrenari, berriz, gazta bana.

Maiatzaren amaiera alderako mendi irteera antolatu du Orixol elkarteak, Pirinioetara

Maiatzaren 29an eta 30ean egingo dute mendi irteera Orixolekoek. Hala, maiatzaren 29an, sei-zortzi orduko ibilaldia egingo dute: Belgua-Hiru Erregeen Mahaia-Linza; eta maiatzaren 30ean, bost-zazpi orduko ibilaldia egingo dute: Zuriza-Txipeta-Selva de Oza. Maiatzaren 29an, 05:30ean aterako dira Aramaioko autobus geltokitik. Zurizako ostatuan egingo dute lo. Hori bai, zakua eraman behar da. Bazar-kideek 55 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 65 euro.

Umorean oinarritutako ikuskizuna izango da gaur, barikua, Anboto tabernan

Kulturarekin lotutako ekimenak antolatzen segitzen dute Anboto tabernan. Horrela, oraingo honetan, antzerki-komedia ekarriko dute, Oliver Productions produktorearen ikuskizun bat. Dioteenez, barrea eta dibertsioa ziurtatuta izango dira ikuskizun horretan. 45 minutuko saioa egingo dutela iragarri dute. Ekitaldia gaur izango da, 22:30ean hasita.

TELEFONO JAKINGARRIAK


OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15



Udaletxeko lanak bide onetik

Bide onetik doaz udaletxean egiten dabilzan berrikuntza lanak. Eraikinaren barruko alde guztia guztiz hustuta dute, eta dagoeneko hasi dira igogailua eraikitzen. Lanen ondorioz, udaletxearen aurrean ezin da ibilgailurik aparkatu, baina oraingoz ez dute bestelako eragozpenik sortu, udaletxeko bertako langileendako izan ezik. /U.M.

Azoken programa Aramaion bukatuko da

U.M.

Zuiako Koadrilaren barruan egiten diren aurtengo azoken programa zehaztuta dago: Ondategin hasiko da, ekainaren 27an, eta Aramaion bukatuko da, urriaren 30ean. Oro har, Araban 35 azoka izango dira aurtten, ganaduarekin edo nekazaritza kontuekin lotutakoak.

Zuiako eskualdeari dagokion aurtengo azoken egitaraua zehaztu dute. Azken urteotan moduan, hiru azoka izango dira, guztiak ere ganaduarekin edo nekazaritzarekin lotutakoak.

Edozelan ere, Arabari begiratuz gero, guztira, 35 azoka antolatutakoak 2004rako.

ONDATEGIKO JENDETSUENA

Hala, Ondategin hasiko da Zuiako eskualdeko azoken programa, datorren ekainaren 27an. Bederatzigarren azoka antolatuko dute Ondategin, *Gorbea Inguruko Zaldiaren Erakusketa* izenarekin. Hala, eta azokaren izenak dioen moduan, zaldien erakusketak izango du garrantzirik handiena azoka hartan, baina, edozelan ere, bestelako ekitaldiak ere izango dira. Adibidez, moxalen oke-

la dastatu ahal izango da eta, besteak beste, zaldi lasterketak egingo dituzte.

Azken urteotan, inguruko azokak kontuan hartuta, Ondategiko azoka horrek erakarri du jende gehien: 4.000 bat lagun. Era berean, ganaduarekin lotutako saltoki gehien izaten dituen azoka ere bada.

MURGIAN, URRI HASIERAN

Hala, Ondategiko azokaren ostean, Murgian ospatu ohi den Zuiako Ibarreko azoka etorriko da. Urriaren 3an izango da hori. Ardiak, ahuntzak, zaldiak eta bestelako ganadu mota salduko dute. Baita inguruan egindako produktuak ere, gaztak, eztiak eta gozogintzako produktuak, adibidez. Horrekin batera, base-rietarako makinak erosteko aukera ere izango da. Murgian hamabigarren aldiz egingo dute azoka hori.

ARAMAION, URRI BUKAERAN

Eta bukatzeko, Aramaioko azokaren txanda izango da. Urteroko azokaren txanda, hain zuzen ere. Urriaren 30ean egingo dute, eta orain arte moduan, nekazaritzarekin lotutako produktuak eta artisautzarekin lotutakoak izango dira ikusgai eta erosgai.

OHARRAK

BAÑERAREN PARTIDUAK

Bañerako bi taldeek irabazi egin zuten joan den asteburuan: neskek, Ekialderen kontra, 0-1; eta mutilek Los Herráñen kontra, 1-0. Bihar, neskek etxean jokatu dute, Francisco de Vitoriaren kontra, 10:00etan. Mutilek Laudioko Canciller Ayalan dute partidua, La Milagrosaren kontra, 10:30ean.

BARIKUKO ZINEMA

Iciar Bollain zuzendariaren *Te doy mis ojos* filma emango dute. Laia Marull, Luis Tosar, Candela Peña eta Rosa María Sarda dira aktoreetako batzuk. Gaur egun, zorritzarekin, horrenbestetan entzuten ditugun tratu txarren gaineko filma da. Zinema emanaldien antolatzaileek jakinarazi dute eskaera dela-eta, ordutegi aldatuta egitea erabaki dutela. Horren ondorioz, maiatzean saioak 22:00etan izango dira.

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, *Looney Tunes* filma emango dute. Marrazki bizidunak eta ohiko filma nahastu dituzte filma horretan; komedia da.

BOTEPRONTOAN/ Manex Arriolabengoa · Gitarra ikaslea

“Seigarren urtera heltzen naizenean, gitarra elektrikoarekin hasiko naiz”

Donostiako Udaletxean kontzertua egin duela-eta, halaxe izan dugu guk Manex Arriolabengoa gaztearen berri. 11 urte besterik ez ditu (12 betetzeko), baina, oso argi du zer gustatzen zaion: gitarra jotzea. Urteak daramatza Arrasate Musikalen ikasten eta Manexen irakasle Asun Azurmendik esan digunez, oso ondo jotzen du, gainera, artista dela esan digu eta Donostian oso kontzertu polita egin zuela:

Donostiako kontzertuaren gainean berbetan hasiko gara. Zer dela-eta joan zinen hara?

Aurreko urtean hasi ziren antolatzen gitarra kontzertuak Donostian (Euskal Herriko Airean Gitarra Elkarteak). **Arrasate Musikaletik joan zinen? Bakarrik jo zenuen edo taldean?**

Bai, Arrasate Musikaleko taldekide moduan joan nintzen. Baina, bakarrik jo nuen. **Eta zelako esperientzia zela iruditu zitzaizun?** Hasieran lotsatu egiten zara eta nerbiosoa jartzen zara; baina, jotzen hasten zarenean eta



“Kontzertuaren hasieran lotsatu egiten zara, baina, jotzen hastean dena ahazten zaizu”

kontzertuaren erdi inguruan-edo zaudenean, dena ahazten zaizu. Pasatu egiten zaizu. **Noiztik zabilta gitarra jotzen?** Hirugarren mailan hasi nintzen, 8-9 urterekin. **Lehenagotik zenuen gitarra-rikiko zaletasuna edo zerbaitengatik erabaki zenuen gitarra ikasten hastea?** Nire anaia Martinek jotzen du gitarra. Niri ere gustatu zitzaidan. Hasieran bateria edo gitarraren artean zalantza neukan eta azkenean gitarra aukeratu nuen. **Eta gitarrarekin aurrera jarraitzeko asmoa duzu?** Bai. Seigarren urtera heltzen naizenean, gitarra espainola utzi egingo dut eta gitarra elektrikoarekin hasiko naiz. **Orain zenbatgarren mailan zabilta?** Laugarrenean. **Bukatzen nabil. Orduan, gitarraren karrera egin nahi duzu?** Ez dakit. Nik jo nahi dut. Jotzea gustatzen zait, baina... Ez daukat plan berezirik. **Zuri zeuri zein gitarra-jole gustatzen zaizu?** Gatibu, Ken Zazpi eta halakoak.

LABUR

Asteburuan, pilota jaialdiak izango dira Aramaion

Gaur, barikua, eta bihar, pilota partidak jokatu dituzte Aramaion. Gaur, ETB Kantxa Lau T'erdiko Txapelketaren barruan bi partidu izango dira. 21:15ean hasiko da saioa, kade-te mailan, Jauregik Arangoaren kontra jokatu du. Gero, 23 urte azpikoen txanda izango da. Hala, Errazkinek Landaren kontra jokatu du; Izagirrek Etxegaraireren kontra eta Ereñok Beobideren kontra.

Berriz, bihar, San Prudentzio Txapelketa jokatu dute herriko pilotari gazteek. 11:00etan hasiko dira partiduak. Aurrenekoan, Xabi Arrizabalagak eta Manex Arriolabengoak Asier Riojaren eta Iker Ruiz de Azuaren kontra jokatu dute eta Iker eta Markel Arriolabengoak Ander Axperen eta Igor Oiangurenen kontra. Haien ostean, Ekain Erizek eta Raul Perezek Danel Fernandezek eta Mikel Balanzategiren kontra jokatu dute eta Ander Lopezek eta Xabi Igoak Bingen Lopezek eta Iñaki Bengoaren kontra.

ERRETRATUZHARRA

Iturbide
egoitzaren
inaugurazioa

Iturbide egoitza inauguratu zuteneko argazkia utzi digute oraingo astean argitaratzeko. 1984ko azaroaren 9koa da irudia. Karlos Garaikoetxea zen orduan lehendakaria. Eta halakoetan ohi denez, huraxe etorri zen Iturbide egoitzaren inaugurazio ekitaldira.

Ikusten duzuen moduan, argazkiak erakusten duen unean egoitza bedein-katzen zebilen Arrasateko parroko Jose Maria Astigarraga. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Alvaro Arregi —Arrasateko alkatea zen orduan eta berak kudeatu zuen Iturbide egoitza—, Jose Antonio Ardantza —diputatu nagusia zen, eta lehenago, Arrasateko alkate zela, Iturbide egoitza eraikitze-ko egitasmoa lantzen hasi zen—, haren atzean dagoen bizarduna Jose Maria Velez de Mendizabal da, gero, Karlos Garaikoetxea dator, haren atzekoa Eli Galdos da, aurreko bizarduna Angel Larrañaga —Jaurilaritzako ordezkarria—, eta haren atzean dagoena, ile zuriduna, Luis Mari Iriondo da,



Iturbide egoitzako aurreneko zuzendaria. Lehen esandako moduan, bedein-kazioa ematen dabilena Jose Maria Astigarraga parrokoa da, eta haren ondoan kopari eusten dabilena ezezaguna da. Bukatzeko, izkinako betaurrekoduna Pedro Salaberri apaiza da, eta haren ondoko mutikoe-

tan nagusia Dabid Amozarrain eta gaztetxoena ezezaguna.

Luis Mari Iriondok kontatu digu Iturbide egoitza eraikitze-ko, han zeuden txaletak erosi, bota eta eraikin berri-berria egin zutela. Esan digu, baita ere, bera 12 urtez izan zela zuzendari, 1996ra arte. Eta gero,


trantsizio epe labur baten ondoren, Udalak hartu zuela gidaritza, gaur egun dagoen modura.

Argazkia: Arrasateko Udala.
Informazioa: Arrasateko Udala eta Luis Mari Iriondo.
Urtea: 1984.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Lur azpiko
aparkalekuak
atzera

Orain dela 14 urte, Cordoba y Oro eta Obenerreka plazetan egin gura zituzten lur azpiko aparkalekuen proiektuak bertan behera geratu ziren. Eta arrazoia izan zen herritarrek ez zutelara eskaerarik egin. Interesatuak aparkaleku itxiak gura zituzten; Arrasateko Udalak, berriz, aparkaleku irekiak egiteko asmoa zuen, eta 50 urterako eman gura zituen.



≈ 1990

50 urte pasa eta gero Udalarena izango zen aparkalekuaren jabetza, eta dirudienez, interesatuak ez zuten hori begi onez ikusi.



2004

Eusko Promociones-ek Udalari jakinarazi zion ezinezkoa zela lanak egitea, oso jende gutxik eskatu zuelako lur azpiko aparkalekua.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

arbolapeta



arrasate
★
beinke

LORAK

BELEN MAIZTEGI

Teleordainketa
24 orduko zerbitzua

Biteri etorbidea 13
ARRASATE
Tel.: 943 08 15 44

LORAK

Telleria Baserriko Jaia

arrasate-mondragón

Keramikagileen

Topaketa


- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...

maiatzak

6-7-8

eta 9

-Antolatzen du:




-Babesleak:




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


EL DIARIO VASCO



Goienkaria



"la Caixa"



Pando
Errotuloak

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora